

ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko urtarrilaren 28a > Astelehenak > IV. urtea > 175. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"ATECERen
egoitz
publiko
egiteak
onurak
ekarriko ditu"

Karmele Barrutia
Aita Menniko
psikologoa > 06



G2a

Mahaster River
musika taldearen
DVDA > 23

ARRASATE
Udal aurrekontua onartu zuen
osokoaren gehiengoak > 10

KIROLA
Uste baino arazo gehiago Mondrak
Eibartarrak menderatzeko > 16

KULTURA
Gosek disko berria aurkeztu zuen
etxean, Arrasaten > 24

GARRAIOA > TAXIAK

Telefono bakarreko sistema

Sistema berriak
iritzi kontrajarriak
eragin ditu ibarreko
taxilarien artean > 09

TEKNOLOGIA > GARAIA

Infonomia- Euskadik Garaia Gunean izango du egoitza

Infonomia berritzileen sare-
aren egoitza iraunkorra Arra-
sateko Garaia Berrikuntza
Gunean egongo da. Infonomia-Euskadi sortu berria da
eta berrikuntzaren esparruan
puntakoak diren enpresen
arteko loturak sustatzeko
aukera emango dio Garaiari.
Lehen ekitaldia Arrasaten
etzi egingo dute. > 04



JOSETXO ARANTZABAL

SINDIKATUAK > ELA

ELAren ekitaldia Arrasaten

Eskualdeko 200
ordezkarri batu ziren
egubakoitzean > 04

AISIALDIA > SORBELTZ ELKARTEKO BILKURA

Oñati, auto karabanen bilgune aste bukaeran

SORBELTZ Guztira, elkarteko 110
bazkide batu ziren Oñatin. 50 auto
karabana inguru ekarri zituzten

BISITAN IBARREAN Oñati eta
inguruak bisitatu dituzte; hilean
behin irteten dira asteburu pasa > 2-3

INTERNET > ARGIA SARIAK

Euskal Wikipedia, saritua

Arkaitz Zubiaga
arrasatearrari
elkarritzeta > 05

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Elkarritzeta > 06
- Iritzia > 07-08
- Herriak > 09-14
- Kirola > 15-22
- Kultura > 23-27
- Sailkatuak > 28
- Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
- Berri-zakua > 30-31
- Azkena > 32

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

AURIS
Toyota berria

Gidatu zure barrenak
eramatzen zaituen lekuraino,
13.910 €-tik aurrera

EuskoAuto

Olabarrena z/g
BERGARA
943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

www.euskoauto.toyota.es

AISIALDIA > SORBELTZ ELKARTEKO BILKURA

Auto karabanan erabiltzaileek Oñati hartu dute aste bukaeran

SORBELTZ ELKARTEA Sorbeltz Auto Karabanan Elkarteko bazkideak Oñatin izan dira aste bukaeran inguruneak ezagutzen eta urteko batzarra egiten

ZUZENDARITZA BERRIA Batzarrean joan zen urteko balorazio positiboa egin zen; estatutuak ere aldatu zituzten eta zuzendaritza berria hautatu zuten

INTERNET Elkartean izena eman gura duenak www.sorbeltz.org web gunera jo behar du; hor azaltzen da egin beharreko guztia

MIRIAN BITERI > OÑATI

Oñatiko herria eta inguruneak bisitatzen ibili dira aste bukaeran Sorbeltz Auto Karabana Era biltzaileen Euskal Elkartekoak. Hala, guztira, 51 auto karabana eta 110 bazkide inguru bildu dira egunotan gurean.

Oso balorazio positiboa egin dute. Hala, gustura egon direla jakinarazi du elkarteko bazkide Valvanera Lumbriterasek. Batez, Oñatin biltzeko baimena aurkeztu zutenetik, toki guztieta oso harrera jaso dutelako. Eta bestetik, uste zutena baino bazkide gehiago bildu izan direlako. "Hasieran 20 edo 25 bazkide inguru elkartuko ginelakoan geunden. Bada, aurreikuspen guztiak gainditu ditugu; 51 auto karabana egon gara-eta", aipatu du.

Egubakoitz arratsaldean iritsi ziren Oñatira. Ibarra futbol zelaiko aparkalekuaren elkartu ziren. Elkarren artean agurtu ostean, aferia prestatu zuten. Goiz erretiratu ziren gehienak, hurrengo egunean goiz jaiki behar ziren-eta. Bisita gidatua izan zuten partaideek zapatu goizean, 09:00etan. Unibertsitatea

eta Parroquia ikusi zuten; baita eraikin horien gaineko informazioa jaso ere. Jarraian, 10:00ak aldera, kultur etxerantz abiaturi ziren, elkartearren batzarrean parte hartzeko asmoz.

BATZAR MAMITSUA

Bilera luzea izan zen, gai ugari zeuden-eta eztabaideatzeko. Bi zatitan egon zen batzarra banatuta. Joan zen urteko balorazioa egin zuten lehenik. "Oso balorazio positiboa egin dugu". Hala, 2007. urtea "hasieran uste genuena baino askoz hobeagoa izan zela", gaineratu zuten zuzendaritzako kideek.

Kontuan hartu behar da urtebeteko baino ez duela Sorbeltz elkartea. 2006ko azaroan sortu zen eta pasa berri den aste bukaera honetako lehenengo batzarra izan da. Ehun bazkide ditu dagoeneko elkartea. Momentuz, debagoiendar bakarra dago Sorbeltzen sartuta; berigarar bat, hain zuzen ere.

Bazkideak ere pozik azaldu ziren elkartearren ibilbidearekin. Joan zen urtean, hilero, irteera bat egin zuten hainbat tokietara,

Sorbeltzek ehun bazkide ditu dagoeneko; debagoiendar bakarra dago

Abuztuan eta Aste Santuan izan ezik, hilero behin irteten dira elkartekoak asteburu pasa

hala nola, Errioxara, Kantabria eta Burgosera. "Abuztuan eta Aste Santuan izan ezik, aste bukaera bateko irteerak egin izan ditugu hilero", gogorazi zuten Sorbeltzko bazkideek.

Jarraian, datozen hilabeteetarako aurreikusita dauden hainbat irteeren berri eman zuten. Esaterako, otsailaren 23 eta 24an, txotx garaia aprobatxatuko dute. Hala, Gipuzkoako sagardotegi batera joango dira. Horrez gain, Soria eta Gipuzkoako kostaldeko gerturatzeko asmoa ere badute Sorbeltzkoek. "Bada, oraindik ez dugu data zehatzik. Irteera bat egin ostein hasten gara hurrengoa antolatzen", jakinari digu batzarraren ostein Valvanera Lumbriterasek.

INTERNET ETA ESPERIENTZIA

Irteerak antolatzekoan, Internetera jotzen dute askotan; toki esanguratsu gaineko informazioa ugari dago-eta sarean. Norberaren esperientzia eta ezagutza ere funtsezkoa da.

Irteera bat egin aurretik, guztia oso ondo antolatu beharra dagoela ere azaldu du Lumbre-

rasek, izan ere, "oso ibilgailu handiak direnez", Udalei biltze-ko baimena eskatu behar diente-eta. Oñatin ere horrela egin zuten Gabonen aurretek. Horren harira, elkarre moduan funtzionatzeko atea zabaltzen dituela azpi-marratu du.

Batzarraren bigarren zatian, elkartearren estatutuak aldatu zituzten bazkideek. Bada, oso aldaketa txikiak egin ziren; elkartearren funtzionamenduan eragina ez dutenak. "Hasieran adostutako elkartearren helburuak zehaztu ditugu bereziki", jakinari du. "Ez da inolako arazorik izan hori egiteko", gaineratu du.

Horrez gain, zuzendaritzako kide berriak ere aukeratu ziren zapatuan egin zen batzarrean. Sorbeltz sortu zenean urtebetearako zuzendaritza osatu zen. Aldatzeko ordua zen beraz. Hala, Tamara Santesteban elkarteko presidente berria izendatu dute; Iñaki Calvo ordezkarriaren kargua hartu du eta Koldo Diaz, berriz, diruzainarena. Josu Ugaldet www.sorbeltz.org web orriaren ardura hartu du; Komunikazio eleduna Leire Urkidi da eta



Oscar Hevia
Aviles

Victor Acuña
Portugalete

Miren Bereziartu
Zumarraga

Juan Jose Bermejo
Errenteria

Auto karabana batek "askatasuna" ematen duela uste du Oscar Hevia asturiarrak. "Datak zehaztu eta erreserbak egin barik bidaiatzeko aukera ematen du. Horrek eragin ninduen auto karabana bat erosten". Sorbeltz elkarteko bazkide egin zen "adiskideak hor nituelako". Oñatiria buruz "oso toki polita" dela dio asturiarrak. Aurretik egonda zegoela ere esan du.

Hamasei urte daramatzta Victor Acuña auto karabanekin bidaiatzen. Hiru izan ditu dagoeneko. Gustuko ditu "etxetik kanpo egon zaitezkeelako eta era berean, etxearen egongo bazina bezala sentitu". Sorbeltzko fundatzaileetariko bat da. Akuña bera izan zen Oñatira etortzea proposatu zuena, "arkitektonikoki oso herri aberatsa delako eta inguruneak zoragarriak direlako".

Bi auto karabana izan ditu azken lau urteetan Miren Bereziartuk. "Asko gustatzen zaigu, nahi duzun tokia ezagutzeko aukera ematen du, erosoa da". Telebista bidez Sorbeltzen berri izan zuela ere esan du. Hala, interneten informazioa eskuratu ostean, elkarteko bazkidea egin zen, "gure eskubideen alde lan egiteko". Oñati etxetik hurbil duela eta askotan etortzen dela dio.

Oñati "oso herri polita" iruditzen zaio Juan Jose Bermejori. "Aurrelik egonda ginene. Bada, jakin nuenean etorri behar ginela ez zuen zalantzak izan", dio. Auto karabanan etorri da. "Sei urte daramatzagu mundu honetan. Haurrek txikiak zirela arazoak genituen oporrekin eta auto karabanan topatu genuen irtenbidea", gogorazi du. Elkartean garrantzia azpimarratu du.

Oñatin Parroquia eta Unibertsitatea bisitatu zituzten zapatu goizean

Domekan, berriz, Arantzazuko Santutegia eta Arrikrutzeko kobak

irteeratarako eleduna, berriz, Victor Acuña. Alegia, orain arteko presidente. Oñatitik irtendako zuzendaritza berria bi urtez egongo da.

Batzarra amaitu ostean, Oñatiko herri gunetik ibili ziren eta baziakdu ostean, Arantzazura igo ziren. Hango aparkalekura, hain zuzen. Eguna amaitu aurretik, Goiko Benta jatetxeen bapofaldu zuten baziakideek. Arantzazuko Santutegia ezagutzeko astia ere izan zuten domeka goizean, baita Arrikrutzeko kobetan murgiltzeko aukera ere. Gustura ibili dira egunotan eta Deba-goienera itzuliko direla esan dute.

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

Esan bezala, Sorbeltz elkartea urtebete baino ez du. Valvanera Lumbresek azaldu duenez, erabiltzaileen eskubideak bermatzeko eratu zen bereziki. "Frantzieta eta Alemanian ez bezala, hemen oso auto karabana gutxi ikusi dira orain gutxira arte", esan du. Bada, azken urteotan ibilgailu mota horien salmentak "izugarri igo" direla eta erabiltzaile horien eskubideak defen-datu beharra dagoela aipatu du.

Auto karabanendako gune gehiago eskatzen dituzte bereziki. "Frantzieta 4.200 gune inguru daude; Espainian, berriz, 40 bat aparkaleku baino ez", salatu du. Turismo mota hori bultzatu beharra dagoela uste du, "administrazioek ez dute-eta orain arte behar-



AUTO KARABANA Erreenteriako Juan Jose Bermejo eta bere senideak auto karabanan hamarretako prestatzen.

JOSETXO ARANZABAL

bezala erantzun". Hala, "ibiltzen garen tokietan dirua uzten dugu eta gainera, urte osoan mugitzen gara", azpimarratu du. Horrez gain, auto karabanan "erabat autonomoak" direla gogora ekarri du Sorbelzko kideak.

SOSLAIA

Auto karabanen erabiltzaileen soslaia ere aldatu egin dela esan du. Orain arte gehienak aurre-jubilatuak ziren, "horiek zirenta auto karabana bat erosteko ahalmena zutenak". Bada, azken aldian joera aldatu egin da eta gaur egun, "adina guztietako jendeak erosten du horrelako ibilgailu bat". Ume txikiak dituzten familia asko daude tartean.

Bestalde, gaur egun, hiru auto karabana mota daudela azaldu du. *Capuchina* delakoak kabinaren luzapena du, bidaia-ri-lekuaren gainean. Normalean,

lau eta sei lagun hartzeko aukera izaten du horrek. Luzexka izeneko *capuchina* baino baxuagoa da eta beraz, azkarragoak iza-teaz gain, gutxiago kontsumitzen dute. Bada, espazio gutxi ere

izaten dute. Integralak luxuzkoak eta beraz, garestienak izaten dira. Gorputz batekoak dira. Alegia, bidaia-ri-leku eta kabina ez daude bereiztuta. Mota horretako modelo merkeenak 50.000

55.000 euro artean balio du gutxienez. Bada, askoz garestia-koak direnak ere badaude merkatuan.


Normalean, sei eta zazpi metro eta erdi dituzte auto karabana gehienek eta 3.500 kilo baino gutxiago pisatzen dutenak, auto baimenarekin gida daitezke. Zirkulazio-zerga ere ordaintzen dute, beste ibilgailuek bezala. "Motorra dute eta beraz auto bat bezalakoa da", adierazi du Lumbresek.

Ibilgailu autonomoa duen edozeinek eman dezake izena Sorbeltz elkartean. Webgune bat dute horretarako. Alegia, www.sorbelz.org. Gune horretan elkartearren inguruko informazioa ematen da. Gainera, bigarren eskuko auto karabanan eskaintza dago; Europan zehar kokatuta daude guneen berri ematen da, besteak beste.

DEBAGOIENEKO UDALAK

Arrasateko Udalak baino ez du araututa auto karabanan non aparka daitezkeen

Ibarreko Udalekin jarri gara kontaktuan, auto karabanan gainean araudirik duten edo ez jakiteko. Arrasateko Udalak baino ez dute hori araututa. Joan zen abenduko osoko bilkuraren herri barruko zirkulazioaren inguruko udal ordenantzak aldatzea onartu zuen udalbatzarrak aho batez. Hala, besteak beste, auto karabanan epe luzez bide publikoan aparkatzea debekatuta dago. Bost egunetan baino ezin da toki berean utzi. Ibilgailu handiak Musakola, Markuleta eta Kataide industri guneetan aparkatu behar direla ere jasotzen da ordenantzeten. Bestela, Udalak neurri zigortzaileak aplikatuko ditu. Debagoieneko gainontzeko udaletan ez dago araututa. Auto karabana matrikulatuta baldin badago, autoekin jarraitzen dituzten neurri berdinak aplikatzen direla jakinarazi digute udaletxetan.



- Merkatuko lehen markak
- Gremioen koordinazioa
- Mota askotako estiloak
- Etxebizitzen erreabilitazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKAK-ALTZARIAK

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



TEKNOLOGIA > EGOITZA BERRIA

Infonomia-Euskadik Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean izango du egoitza

Infonomia sareak 17.000 kide ditu; haietatik 1.000 inguru Euskal Herrikoak dira

Lehen ekitaldi ofiziala Garaia egoitza berrian etzi, eguztena, egingo dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Infonomia berritzailen sareak Euskal Herrian zabaldu duen ordezkaritzaren egoitza iraunkorra Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egongo da. Infonomia-Euskadi 2008. urtearekin batera sortu da.

Angel Arbonies izango da Infonomia-Euskadiko koordinatzailea; egun, Garaia Innovation coach-a da. Arboniesek sei liburu eta hainbat artikulu argitaratu ditu ezagutzaren eta berrikuntzaren gainean. Haren hitzetan, "Infonomia sareak konektatuta egoteko eta azken joeren berri izateko aukera eskaintzen du, eta bi baldintza horiek ezinbestekoak dira XXI. mendeko edozein enpresendako".



GARAIA Eguztenean inguruko enpresetako 180 ordezkari inguru elkartuko dira Garaia Berrikuntza gunean. IMANOL SORIANO

LEHENENGKO EKITALDIA, ETZI

Eguaztenean egingo dute egoitza berrian lehen ekitaldi ofiziala Garaian: *UpDate'08* zirkuituko jardunaldi bat hartuko dute.

Eguerdi aldera hasiko den ekitaldian, inguruko enpresetako 180 ordezkari inguruk parte hartuko dute; eta multimedialko hainbat formaturen bidez, negozioen eta

enpresaren munduan zehazten hasi diren joera berritzailen inguruko hausnarketa egindo dute. Eguazteneko ekitaldia bi orduko saioa izango da, eta Alfons

Cornellak eta Antonella Brogliak zuzenduko dute.

Etzi egingo duten lehen ekitaldiaren ondoren, datozen hilabeteotan, beste hainbat ekintza egitea aurreikusten dute; baina, gaiaak eta egunak zehaztu barik daude oraindik.

AHOKULARITZA LANA

Infonomia berritzailen sareak berrikuntzaren esparruan punta-puntakoak diren enpresen arteko loturak sustatzeko aukera eskainiko dio Garaia Berrikuntza Guneari. Era berean, ikertzaileen arteko topaketak erraztuko ditu. Infonomia sareak konpainia garrantzitsuetarako egiten du lan; ahokularitzak lana betetzen du, eta berrikuntzarekin lotutako eduki asko sortu ditzu; besteak beste, Ifaldizkaria, hainbat liburu, eta www.infonomia.com web gunean. Gainera, erakunde berritzailen 700 kasu baino gehiago bildu ditu hainbat formatutuan. Infonomia sareak 17.000 kide ditu, eta haietatik 1.000 inguru Euskal Herrikoak dira.

Infonomia sarea Alfons Cornellak sortu zuen 2000. urtean, eta haren estilo berezi eta berritzailari esker, berrikuntza gaetan erreferentzia nagusietako bat bilakatu da.

SINDIKATUAK > ELA-REN EKITALDIA ARRASATEN

Hausnarketa egin dute gizarte eredu berri bati buruz

ELA sindikatuko eskualdeko 200 delegatu bildu ziren egubakoitzean, Arrasateko Kulturaten

M.B. > ARRASATE
Beste eredu sozial bat posible da lelopean, nazional mailako ekitaldia egin zuen ELA sindikatuak egubakoitzean Arrasateko Kulturaten. Goizeko hamarretan hasi zen ekitaldian Debagoieneko eta Debabarreneko 200 delegatu bildu ziren. ELAko eskualdeko idazkari Egoitz Iturbek, Osakidetzako delegatu Anuska Alonsok, Gizalan Federazioko idazkari Maider Zestonak, eta ELAko Segurtasun eta Osasun bulegoko idazkari Ihanire Dominguezek parte hartu zuten ekitaldian.

Hausnarketa bukatu ondoren, manifestaldia egin zuten Debagoieneko ospitaleraino Osa-

kidetzako lan-hitzarmenaren aurka protesta egiteko. Kultura-tenten hasita

LANGILEEN BALDINTZAK

Gizarte eredu berri baten inguruko hausnarketa egiten dabil ELA sindikatua eskualdeka. Arrasaten egindako bilkuraren administrazioak gizarte gastuetarako bideratzen duen diru kopuru txikia "salatu" zuten. Era berean, diru kopuru horrekin dauden gabeziak ezin direla estali esan zuten, eta ondorioz langileen baldintzak "okerrera" doazela aipatu zuten.

Azkenik, administrazio publikoak pribatizazioaren aldeko jocera duela ere salatu zuten.



MANIFESTAZIOA ELAko ordezkariek Osakidetzako lan-hitzarmenaren aurka protesta egin zuten egubakoitzean. TXOMIN MADINA

Arkaitz Zubiaga > Euskal Wikipediako administratzailea

"Euskal Wikipedian jendearen debaldeko lana eskertzen da"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Argia astekariak egubakoitzean banatu zituen urtero banatzen ohi dituen sariak. Euskarazko Wikipediak (eu.wikipedia.org) jaso zuen Interneteko saria. Arkaitz Zubiaga 25 urteko arrasatearra da webguneko bost administratzaileetako bat. Zubiagak ez zuen egotekizan Lasarte-Oriako sari banaketan, urtarria ezkerro Madrilen, UNEDen, Informatika doktoretza egiten ari delako.

Euskarazko Wikipediak Interneten euskara eta Euskal Herria sendotu izana nabarmendu dute Argia-koek.

Saria jasotzea pozgarria izanda, azken baten Wikipedian parte hartzen dutenek debaldeko lana egiten baitute, hemen ez dago irabazirik. Eskertzeko da jendeak egiten duen lana, eta sariak euskarazko Wikipedia eza-gutxera emateko balio izango du.

Zure ustez, zerk bultzatzen du jendea Wikipedian parte hartzera?

Hainbat arrazoi egon daitezke. Nire kasuan, gauzak ikasteko baliogarria gertatu zait, testuak itzultzen esate baterako.

Era berean, gai jakin baten inguruau idaztea ekargarria da askorrentzat eta aurretek egindako lana aprobetxatu daiteke sarean jartzeko. Euskara bultzatzea izan daiteke beste arrazoi nagusietako bat.

Zenbat erabiltzaile ditu gaur egun euskal Wikipediak?

Erregistratutako erabiltzaileak 1.000tik gora dira gaur egun. Ekarpenen arabera, 60tik gora erabiltzaile aktiboak lirateke eta 20 inguru oso aktiboak. Oso aktiboek hilean 100 ekarpenetik gora egiten dituzte. Ekarpen bat izan daiteke zuzenketa txiki bat egi-tea. Edozein modutan, estimatzeko moduko erabiltzaile kopu-

"23.500 sarrera jaso ditugu; bizpahiru hilabetetan 25.000 izatera iritsi nahi dugu"

"Interneten, euskarazko eskaintza badago. Erabiltzaileen ohitura handitzea falta da"


rua dugu. Parte hartzen duten guztien lana txalotzekoa da.

Eta zenbat sarrera egon dira hasieratik hona?

Euskal Wikipedia 2003an jarri genuen abian eta 23.500 artikulu edo sarrera inguru jaso ditugu dagoeneko. Bizpahiru hilabetetan 25.000 sarrera izatera iritsi nahi dugu; kopuru esanguratsua da hori.

Artikuluak argitaratzeko orduan badago inolako filtrorik?

Ez. Testua bidali bezain pronto argitaratzen da. Horrek abantailak eta desabantailak dakar-tza. Edozeinek bidali ditzake testuak eta gerta daiteke gazteak-eta tontokeriak bidaltzen hastea, jolastearren. Halakoetan testuak berehalera ezabatzen dira eta kito. Administratzaileak edo administratzaile ez den batek eman dezake testu okerren berri. Bestalde, artikulu jakin baten inguruan haren balio entziklopedikoaren inguruan eztabaida sortzen bada, bozketa egiten da. Beti ezin da testuak bozketara eraman baina helburua hori da: Wikipedia guztiz demokratikoa izatea.



Arkaitz Zubiaga.

MAIDER ARREGI

Oro har, zela ikusten duzu euskararen presentzia Interneten?

Gero eta hobeto. Tresna eta edukien aldetik eskaientza badago. Agian, erabiltzaileen aldetik euskarazko edukiatarra jotzeko ohitura handiagoa falta da.

Sarean, zeintzuk dira zure erreferenteak?

Ez da promozioa egiteagatik baina zabaldu.com [bera da sortzaileetako bat], sustatu.com, hainbat egunkari (*Gara, Berria...*) eta herriko albistetarako, goiena.net. Horiek nabarmenduko nituzke.

Prentsa idatzirik erosten duzu?

Ez, ez daukat ohiturak. Sarean irakurtzen dut.

Gas-ihesa Bergarako Irala kaleko urbanizazio lanetan

Egubakoitzean, Bergarako Irala kalea ordu erdiz itxi behar izan zuten, bertan egiten ari diren urbanizazio lanetan gas hodieria kaltetuta izan ondoren. Hodieria nagusia ez baina alboko hodi bat ukitu zuten langileek, eta gas-ihesa gertatu zen. Zubillagako suhiltzaileek konpondu zuten aberia, Naturgaseko teknikoen laguntzaz. Agurne Barruso alkatea ere gerturatzen zen Irala kalera, gertatutako ezagutzera. 17:45ean zabaldut zuten Irala kalea berriro oinezkoendako. Urbanizazio lanekin jarraituko dute gaur.



E.M.

> AED ELKARTEA Euskararen jatorria, hiru hitzalditan aztergai Arrasaten

Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak antolatuta, *Non-dik dator euskara?* izenburuko hitzaldi sorta hasiko da etzi, eguztena. Josu Nabera itzultziale eta idazleak euskararen jatorriari eta euskararen mitoari buruz jardungo du Kulturaten, 19:00etan.

Hurrengo astean, otsailaren 6an, Martin Mendizabal Arantzazuko apaizaren txanda izango da; toponimian aditu da Mendizabal. Azkenik, otsailaren 13an, Alfonso Martinez Lizarduikoak euskal nortasunari buruz egingo du hitzaldia. Hiru hitzaldiok 19:00etan izango dira.



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

ATECE elkartea, hartutako kalte zerebrala duten pertsonen elkartea, 2004ko ekainean zabaldzituen ateak Arrasaten, mota honetako gaitzak pairatzen dituzten pertsonen eta haien familien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Orain, Foru Aldundiko gizarte ekintzen Aita Menni ospitaleak hartuko sarearen baitan egongo da.

Karmele Barrutia > Aita Menniko psikologoa

"ATECEren egoitza publiko egiteak onurak ekarriko dizkio erabiltzaileari"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Hartutako garun-kalteak, istripu batek garunean eragindako kalteen ondorioz edota ACV (tronbosiak, garun-isuriak, eta abar) baten ondorioz sortutako kalte zerebrala da. ATECE elkartea, hartutako kalte zerebrala dutenen gaixoak zaindu izan ditu Arrasaten duen egoitzan. Orain, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte ekintzen sare barruan sartu da zentroa. Erabiltzaileentzat, zerbitzu alorrean eta ekonomikoki onurak ekarriko ditu aldaketa honek. Honen guztien gainean jardun dugu zentro horretako Karmele Barrutia psikologoarekin.

Zein egoeratan iristen dira hartutako garun-kalteak duten gaixoak zentro honetara?

Traumatismo moderatua edo larria duten gaixoak iristen dira eguneko zentrora. Istripu edota bestelako kalte zerebrala sufritu ostean, lehenengo pausua gaixoaren bizitza salbatzea izaten da. Ondoren, Aita Menni Arrasaten duen garun kalteen unitatean errehabilitazio fase indartsu bat hasten da, eta honen guztien ondoren, gurea bezalako eguneko zentroetara iristen dira. Gaixo hauen eta euren familien bizitza maila hobetzeko terapiak edota ekintzak egiten ditugu. Abilidate kognitiboak, psikomotrizitate zaitasunak, euren arteko komunikazioa...lantzen dira.

Urtarrilaren 7tik aurrera, ATECE elkartearena zen Arrasateko egoitza Foru Aldundiaarena izatera pasatu da.

Orain arte ATECE elkartea erabiltzen zuen lokala, eta orain, Diputazioko Zerbitzu Sozialako Gizarte Ekintzen sarean sartu da elkartea, eta Aita Menni ospitalearen esku utzi du zentroaren kudeaketa. ATECE elkartea pribatua izanik, zentroa ere pribatua izan da. Orain, Diputazioko baliabideen barruan dago eta publikoa da, beraz. Aita Menni Foru Aldundiko Gizarte Ekintzen Departamenduarekin egin-dako hitzarmenaren ondorio da aldaketa hau eta finantzazioa Foru Aldundiko Gizarte Ekintzetatik bideratuko da.

Goizeko bederatzietatik arrasaldeko bostak arteko ordutegia izango du zentroak eta bostetik aurrera, ATECE elkartea, edozein ekintza burutzeko aukera izango du. Beraz, ATECE elkartea Debagoienean presentzia

zabaldu zituen ateak Arrasaten, mota honetako gaitzak pairatzen dituzten pertsonen eta

haien familien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Orain, Aita Menni ospitaleak hartuko

du zentroaren kudeaketa eta Foru Aldundiko gizarte ekintzen sarearen baitan egongo da.



Karmele Barrutia psikologoak Aita Menni ospitalean egiten du lan.

GOIENKARIA

izaten jarraituko du. Horixe da gure helburua.

Aldaketa positiboki baloratzen duzue?

Elkartea, hartutako garun kalteak dituzten pertsonen senitartekoien iniziatiibaz sortu zen. Eta familiartekoien aldarrakapena izan da beti, zerbitzu publikoa eskaintza beharrezkoa zela. Azkenean, Diputazioaren bitarbez publikoa den zerbitzu bat eskaintza lortu da eta positiboki baloratzen dugu. Izen ere, pribatua izateak ekonomikoki karga handia suposatzen zuen senitartekoentzat. Gainera, zerbitzu aldetik ere onurak ekarriko ditu.

Zer nolako aldaketak dira horiek?

Helburuak berdinak izaten jarraitzen dute. Azken finean, gaixoen edota erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzea da helburua, hori lortzera bideratuta dauden ekintzen bitartez. Orain egingo den lana orain arte egindakoaren

KUDEAKETA

"ATECE elkartearen egoitza Aita Menni kudeatuko du aurrerantzean"

BALDINTZAK

"Garuneko minusbalioitasun baten ondorioz arazo kognitiboak edota motorrak dituztenei zuzenduta dago"

HELBURUA

"Helburuak berdina izaten jarraitzen du; gaixoen eta senideen bizi kalitatea hobetza"

antzerakoa izango da. Lan taldeari dagokionez, orain artekoari bi pertsona gehiago batuko zaizkio. Izan ere, zentroan psikologoa, fisioterapeuta, logopeda eta hiru monitore laguntzaile egon dira lanean. Hauei, orain, mediku bat eta gizarte laguntzailea gehituko zaizkie, eta beraz, zerbitzua osatuagoa izango da. Gainera, hemendik aurrera, bazkaria eta garraioa ere sartuko dira zerbitzuaren barruan. Hau da, orain arte, senitartekoek ekarri behar izaten zuten bazkaria eta hori aldatu egingo da. Aurrerantzean bazkaria zentroan bertan eskainiko da.

Zer nolako lanak egiten dituzue gaixoekin?

Gaitasun kognitiboak lantzen dira batik bat; memoria eta arreta lantzeko ariketak, motrizitatea lantzeko ariketak, eskulanak, gimnasia edota fisioterapia ariketak, ulermenak lantzeko ariketak, eta azkenik irteerak. Astelehenetik ostegunera aipatutako

arikeko horiek guztiak landuko dira, eta egubakoitzean irteerak egingo ditugu.

Nori zuzenduta dago Zerbitzua?

Zentroan sartu ahal izango dira garuneko minusbalioitasun baten ondorioz arazo kognitiboak edota motorrak dituzten 18 urtetik gorako Debagoieneko biztanleak.

Zerbitzua erabili gura dute-nek nora jo behar dute?

Interesatuek, lehen ez bezala, udaltxera jo beharko dute. Gizarte zerbitzuetan egin beharko da eskaera, eta bertatik egingo dira tramite guztiak. Hala, Diputazioak gaixo bakoitzaren egoeraren araberako balorazioa egingo du eta gaixoa atenditzeko tokia egokia dela ikusten bada, baimena emango da. Publikoa iza-tean, bide publikoetatik egin beharko da eskaera. Egun zappi erabiltzaile ditu zentroak eta hamabostendako tokia dago.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Emakumeendako ikastaroak antolatu dituzte

Martxora bitartean, hainbat ikastaro daude Emakume Txokoan: pilates, musikaterapia, zahartzen ikastea, autoestimua eta hazkunde pertsonala, euskal dantza eta barreterapia. Argibideak, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

ARETXABAleta

> Gorputzaren musikat tailerra egingo dute

Gorputzaren musikak delako tailerra antolatu du Loramendi elkartea urtarriaren 31rako. Musikaren laguntzarekin, sentitzeko, pentsatzeko... espazioa irekitzen irakatsiko dute. Izenematea, Loramendi euskara elkartean (943 77 09 70 edo loramendi@topagunea.com).

ARRASATE

> Bi ikastaro antolatu ditu Ekin elkartea

Eskulan eta orratzlan ikastaroak antolatu ditu Ekin emakume elkartea. Izenematea: 943 79 83 70.

BERGARA

> Bertso-afaria egingo dute otsailean

Bertso afaria egingo dute otsailaren 16an, eta sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren. Amaia Agirre eta Iker Zubeldia dira gonbidatuak. Artatse elkartean izango da afaria.

ARRASATE

> KZguneko egitaraua datozen egunotarako

Honako ikastaroak egongo dira datozen egunotan KZgunean: *Kontsumitzalea sarean* (gaur, astelehena), *Banaketa zerrendak* (hilak 29 eta 30), *Kutxa I eta II* (hilak 30 eta 31), *KZguneko foroa eta laguntza* (hilak 31) eta *Sinadura elektronikoa* (hilak 31).

OÑATI

> Erretiratuak Tolosako Aratusteetara doaz

Pake-Lekuko erretiratuak Tolosako Aratusteetara joango dira otsailaren 5ean. Txartelak salgai daude.

OÑATI

> Haurreskolan matrikulala egin daiteke

Haurreskolan 0-2 urte bitarteko umeak matrikulatzeko aukera dago otsailaren 1era arte. Martxoan hasiko da ikasturtea. Izena

emateko baldintza bakkarra da umeak gutxienez 4 hilabete izatea.

OÑATI

> 1983an jaiotakoaren irteera sagardotegira

1983. urtean jaiotako oñatiarrek irteera egingo dute otsailaren 23an. Hernani aldeko sagardotegi batera joango dira egun horretan eta joan-etoria egiteko autobusa izango da. Parte haritzeko deia egin dute antolatzaillek. Izenemata Euskadiko Kutxan egin daiteke, otsailaren 9a baino lehen.

ARETXABAleta

> EAE-ANVren aldeko atxikimendua

Independentziaren aldeko eta EAE-ANVren aurkako suspentsioa salatzeko atxikimendua jasoko dituzte Aretxabaletako kaleetan egubakoitzean, otsailaren 1ean. 18:30ean ekingo diote atxikimendua jasotzeari.

BERGARA

> Helduen Heziketa Ikastetxeen datorren lauhilabeterako matrikulatzeko epea zabalik

Bergarako Helduen Heziketa Ikastetxeen otsailelik ekainera bitarteko eskoletarako matrikula egin daiteke dagoeneko. Otsailaren 1era arte dago horretarako aukera. Besteak beste, euskara, ingelesa, frantsesa... emango dituzte. Argibideetarako, jo Irizar jauregiko ikasgela eta edo deitu 943 76 44 52 telefonora.

943 25 05 05
goinkaria@goiniana.com

ARRASATE

> Mediterraneoan itsasbidaia, Abaroakoentzat

Abaroako bazkideek Mediterraneoan itsasbidaia egiteko aukera dute irailean. Bartzelona, Ibiza eta Montecarlo ikusiko dituzte, besteak beste. Izenematea otsailaren 6tik martxoaren 6ra bitartean egin behar da, euren egoitzan.

ARRASATE

> Emakumeen jabetze eskola antolatu dute

Emakumeendako heziketa proiektua da, berdintasunaren bidea. Lidergoa eta elkarlana, tokiko hedabideak, emakumeon memoria historikoa, amatasuna... landuko dituzte. Argibideetarako, deitu 943 79 41 39 zenbakira.

ARETXABAleta

> Fimo eta reflexoterapia ikastaroak aukeran

Fimo ikastaroa emango dute otsailaren 7an eta 14an, eta reflexoterapiarenak, otsailaren 16an. Bietarako izenemate epea gaur, astelehena, zabaltzen da. Horretarako, jo Loramendira (943 77 09 70).

ARRASATE

> Hasi dira urteko kuota kobratzen Abaroan

Martxoaren 14ra arte dago zabalik Abaroako bazkide kuota ordaintzeko epea. 6 euro da, eta ekintzetan parte hartzeko beharrezko da berau ordaintza.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Instituzioen diktadura

Egunzari gipuzkoar batean irakurri dut Arabako Aldundiak Gipuzkoako kalte-ordinak eskatuko dizkiola AP-1aren eraikuntza lanetan izandako atzerapenagatik.

Arraixoa! Badirudi lanen atzerapeneak, instituzioak kalte ditzaketela baina herritarrok ez.

Begibistakoa da Arabako Foru Aldundiak kalte ekonomikoak jasoko dituela egindako inbertsio bat geldik egingo delako hainbat hilabetetan. Eta Debagoieneko herritarrok? Ez al dugu kalte-ordinak merezi auto ilaratan pazientzia eta gasolina agortu arte eman behar izan ditugun orduengatik?

Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin izango digu itzulia 2007an autopisten tarifetan gora egindako biribilketaz irabazitako diru soberakinak. Zaitasunak ei daude. Seguru baietz, baina borondate falta ere bai.

Zergatik ezin dira 2008ko prezioak beherantz biribildu aurrekoak gorantz biribildu ziren bezala? Edo zergatik ez eman autopistarako bono bat AP-1en atzerapenak kaltetutako debagoiendarrei? Zeintzuk diren? Denak.

Mila aukera daude. Instituzioek hartutako erabakientzat eta egindako lanengatik herritarrok ere kaltetuak gerta gaitezkeela onartzean datza guztia.

"Badirudi lanen atzerapeneak, instituzioak kalte ditzaketela baina herritarrok ez"

> Kezkatuta daude

Egunkaria-ko auziko auzipetuak. Unerik txarrenean iritsiko da epaia. Okerrena: Espainiako epaitegien erabakiak iragarri ezinak direla zuzenbidearen ikuspegitik behintzat.

> Lighthouse omen da

Realaren jokalari berriak kontratatzen dituen etxea. Light ala dark? Hori da kontua. Ikerrena dugu argitasunak iluntasunak baino gehiago diren. Momenutz ez du ematen.

debagoiendarrak kanpoan

Imanol Galdos > Oñati

"Oñatik asko eskain diezaioke Donostiarri: lanerako kultura, ekimena..."

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Oñatin jaio zen orain dela 43 urte Imanol Galdos. Oñatiko ikastolako lehenengo belaunaldiko ikaslea da, eta Aloña Menden ere ibilitakoa da. Donostian bizi da aspalditik, baina Oñati bihotzean darama.

Donostian bizi zara, baina Oñati ez duzu saltzeko, ezta?

Oñatiz eta oñatiarra izateaz gero eta harroago nago. Edadearen kontuak direla diote batzuk, nostalgia gailentzen hasten deneko unea iritsi ote zaidan edo!

Noiz joan zinen Donostiara bizi izatera, eta zergatik?

Hamalau urte egin ditut dagoeneko Donostian. Duela hemezortzi urte Renon, Ameriketako Estatu Batuetako Nevada estuan, neska donostiar bat ezagu-

tu nuen, gaur emaztea dudana. Gasteizen bi urte egin ostean, Donostian bizi izatea erabaki genuen.

Samur oihu zinen Donostiarra?

Lehendik ere ezagutzen nuen Donostia. Inongo arazorik ez dut izan hirira egokitzeko. Ikaragarri ondo hartu nau hiriak, eta donostiarrek ere halaxe hartu naute. Hiri irekia da. Tamainaz handia izan gabe ere, bere kokapen ezin hobeak -Iparraldea eta Nafarroa gertu, Europarako atea- hiriaren irekitasuna indartzen du.

Donostiako Udalean egiten duzu lan gaur egin, ezta?

Donostian egin ditudan 14 urte hauetan, Donostiako Udalean ardura ugari izan ditut. Due lau urte pasa, ibilbide profesio-



GOIENKARIA

Oñatiarra Donostian

Emaztea donostiarra du eta Donostian bizi da Imanol Galdos. Hango Udalean egiten du lan, EAJ taldean.

nalari etena jarri eta nire alderdiak, EAJk, egindako eskaintza baiezkoa eman nion. EAJ udal taldeko aholkulari lanetan nabil harrezkero. Alderdiak eta aberztaletasunak Donostia alkatez berreskuratzeko helburu dut hurrengo garaietarako.

Ze gustatzen zaizu gehien Donostiatik?

Kultura eskaintza, kokapen geografikoa, tradizio liberala, bizitzeko kultura, itsasoa, danborra...

Oñatik ze eramango zenuke?

Oñatik gauza asko eskain diezaioke Donostiarri, eta aberastu egingo luke, gainera. Lanerako kultura, Oñatin dagoen indarra eta ekimena; sendotasuna; Arantzazu; parajeen zabaltasuna...

Oñatira zenbatean behin etorzen zara?

Sarri. Gure umeei Oñatiko bidea hasieratik erakutsi diegu, eta emaztea ere gustura dator. Familia zabala dut eta inoiz galduko ez dudan lagun-koadrilatza; bizitzan ditudan altxorrik preziaztenak.

Udan, barrualdeko asko Donostiarra joaten da... zu ere han geratzen zara?

Egin ditut egun batzuk, baina nahiago dut urteko martxa alde batera utzi eta kanpora irteera. Aran bailara dut oso gustuko eta hantxe ematen ditugu udako opor gehientsuenak ere. Eta, berandu baino lehen, familiaren Boize aldean egin nahi dut udako egonaldi luze samar bat, emaztearen baimenarekin.

kale inuesta**Aratusteetarako egun batzuk baino ez dira falta. Mozorrotzeko asmoa duzu aurten?**

Amaia Urtzelai
Langilea
Oñati



Agurtzane Ziarraga
Langilea
Mundaka



Juan Olaeta
Langilea
Oñati



Unai Elortza
Langilea
Oñati

Aurten ez dut uste mozorrotuko naizenik, ez dut eta gogo handirik. Bada, etxeko umeak mozorrotuko dira. Garai batean mozorrotzen nintzen, gustuko nuen. Oñatin gutxitan irten naiz, kanpoan ibili naizelako.

Bai, jantziko naiz. Marikitos aukeratu dugu aurten. Talde bat irtengo gara Mundakan. Han mutilak atorrez jantzia ateratzeko ohitura dago a spalditik; neskak, berriz, lamiez mozorrotzen dira, arropa beltzez.

Ez dut uste mozorrotuko naizenik, baina azken ordura arte ezin daiteke ezer esan. Aurretik janzten nintzen eta Oñatin irteten nintzen. Giro ona zegoen. Orain apur bat galdu omen da eta hori berpiztu guran dabilta.

Lehen, bere garaian, bai. Bada, gaur egun ez naiz janzten. Sei edo zapzi urte daramatzat jantzi barik. Aratustean jaia albo batera utzi dut dagoeneko. Lehen Oñatin ateratzen ginen eta Aretxabaleta-ra ere joaten ginen.

irakurlearen txokoa**943 25 05 05****goienkaria@goiena.com**

BERGARA

> Sauna eta igeriketa tartekatzeko trabak Agorrosinen

Irakurle batek idatzi digu, Agorrosineko kirol gunea dela eta. Saunan edo igerilekuaren egon, batetik bestera pasatzeko berriro jantzi beharra ez zaio logikoa iruditzen. "Ezin dira gauzak erraztu erabiltzaileentzat?" galdetzen du. "Sauna eta igerilekuaren arteko atea zertarako egin dute ba? Bada ordua erabiltzeko" gehitzen du.

ZUZENKETA**Nortasun Agiriaren gainean**

Joan zen asteko zenbakian, 8. orrian, *Usteak uste* sailean, Jon Berezibar kazetariak idatzi zuen iritzi artikulua. *Gipuzkoako oreka, La Conchan* izenburuean, kazetariak kritikatzen zuen, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak kendu izana Nortasun Agiria Arrasaten tramatitzeko zerbitzua. Nortasun Agiria tramatitza, ordea, ez dago kio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioari baizik. Eta, zerbitzu hori Gipuzkoan, Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako ordezkaritzak eskaintzen du. Bestalde, zerbitzua berriro ere martxan jarri dute eta Arrasateko Biztanleen Arretarako Zerbitzuan tramita daiteke Nortasun Agiria.

usteak uste

Mirian Biteri

**Bidaiatzeko
aukera
paregabea**

Auto karabanen bilkura egon da gurean aste bukaeran. Oñatiko Ibarra futbol zelaiko aparkalekuaren ziren zapatu goizean eta hara joan nintzen kuxkuxeatze-ra. Horrelako batean sartzeko aukera izan nuen eta aho zabalik atera nintzen. Komuna nirea baino handiagoa zen. Komuna aipatu dut, baina beste edozer ere aipa dezaket, detailerik ez zen-eta falta eta nik, noski, ez nuen bat ere galdu.

Bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Munduko edozein txokotan egon zaitezke eta etxeen egongo bazina bezala sentitu. Hori bai, auto karabana berri bat ez dago edozeinen eskura. Integralak deritzotenak 50.000 eta 55.000 euro artean balio dute-eta gutxienez. Loteria tokatzen zaidanean horrelako bat erosiko dut, agian.

**"Jende asko bere
ahalbideetatik
kanpo bizi da, gero
eta luzeagoak diren
kredituei esker"**

**"Jerome Kervielen
jokaldiak George
Sorosen ekintza
ekartzen dit gogora"**

zorroztaila

Juan Luis Azkarate

Burtsaren gerrileroak

"Frantziako Societe Generale bankuak 4.900 milioi euro galdu ditu, Jerome Kerviel burtsako operadoreak salerosketa okerrak egin omen zituelako. Societe Generaleko zuzendari Daniel Boutonek adierazi duenez, Kerviel da galearen erantzule bakarra: «Geurrezko enpresa bat sortu eta bankuko kontrola gaindituta, akzioak salerosi ditu»

Berria 2008/01/25



Burtsaz eta finantzez ezer gutxi dakit nik, baina mundu hau zoro xamar dabilzela ezin uka. IBEX 35ek 2007an irabazitako guztia (eta ez zen gutxi izan) hile honeko egun bakar batean galdu zuen, iazko udan AEBetan kreditu-zaborren eraginez sortutako krisialdi ekonomikoak bultzatuta. Mundu globalizatu honeitan, Washingtonen eztulak Madrilen gaisotsasuna dakar. Izan ere, hemen ere, zer nolako autoak ikusten diren, jende asko bere ahalbideetatik kanpo bizi da, erraz lortutako gero eta luzeagoak diren kredituei esker. Baino askoz okerragoa da AEBetan; han, kredituak tonbola baten ematen dituzte. Tonbolan, zuzen zuzenean.

Burtsan efektu itzela izan duen krisi honek ekonomia errealean (akziorik ez duen kaleko jendearena, alegia) ere laster era-gina izango duela iragarri dute aditurek.

Eta, aste honetan bertan, finantz-mundu konplexu horretan beste eskandalu bat ikusi dugu. Jerome Kerviel gazte bretoiak 4.900 milioi euro aise poltskoratu ditu Frantziako Societe Generale bankuari iruzurra egiten. Jerome bertako langilea zen eta orain inork ez daki non dagoen; auskalo zein paradiso fiskalean ibiliko den, Bermudetan.

Jeromeren jokaldiak George Sorosen ekintza ekartzen dit gogora. Gizon honek 1992ean, eta egun bakar batean, modu legalean gainera, 1.100 dolar irabazi zizkion Inglaterrako Bankuari, libraren depreziazioa aurrikusi zuelako. Ikaragarria nola pertsona bakar batek, zuloa non dagoen asmatu, eta sistema finantziero osoa han-kaz gora jartzeko duen ahalmena.

Horregatik FMI eta enparauak hasi dira esaten arautu egin behar direla estuago finantz-fluxuak: sistema kapitalista gero eta basatiago dabilenez, autoerregulazio-mekanismo baten beharran dagoela.

Imaginatu, bestela, dozena bat Jerome eta Georges baten batzuk munduan zehar, gerrileroak legez estrategikoki kokaturik. Zelako triskantza.

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edouard Mendibil Erredakzioa Mirian Biteri, Txomin Madina eta Xabier Urtezai Olinarrizko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larraaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 15
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE
EAE, Aralar, EA eta Ezker Batua-Zutik koalizioak udal aurrekontua onartu dute > 10



> BERGARA
Goenkalea soilik oinezkoendako jarri dute eta bertako bizilagunak ez daude konforme > 11



> OÑATI
Oñatz dantza taldeak Luzaideko Inauteria berreskuratuko du Aratuste-zapatuan > 12

GARRAOA > TAXIEN TELEFONO BAKARREKO SISTEMA BERRIA

Agitaxek eta ibarreko hainbat gidarik iritzi kontrajarriak dituzte

TELEFONO BAKARRA

Telefono bakarreko sistemak iritzi kontrajarriak eragin ditu taxi gidarien artean

ESKUALDERAKO

Eskualdeka lan egiteko aukera ona ematen duela uste du Agitaxek

MIRIAN BITERI > BERGARA

Hilabete eskas darama martxan taxiengoko telefono bakarreko sistematik. Debagoieneko taxilarien artean ez du oso harrera ona izan sistema horrek. Hala, ibarreko taxilarien heren bat baino ez da sistema berrian sartu.

Agitax taxi gidarien elkarteko presidente Emilio Fernándezek azaldu duenez, sistema berria GPS bidez dabil. Hala, bezero batek 943 400 500 telefono zenbakira deitzen duenean, gertuen dagoen taxi gidaaria topatuko du horrek. Udalerrri horretako taxi gidaririk egon ezean, ibarreko beste udalerrieta gidiariengana jotzen du. "Eskualdeka lan egitea eta komunikazioa ona izatea lortu gura izan dugu horrekin", dio.

Administrazioak eta bezeroak sistema horren alde daudela dio Agitaxeko presidenteak. Bada, onartu du ibarreko taxi gidarien artean ez duela oso harrera ona izan. "Egon daitezkeen aldaketen aurrean konfiantza eta segurtasun eza dago orain. Denborarekin lan-kide gehiago animatuko direlakoan nago", esan du.

IBARREAN ENPRESEKIN LANEAN

Horrez gain, batzuek interes propioak dituztela ere adierazi du, "bere eguneroko lanean eragina izan dezakeela uste dutelako". Debagoienean taxi gidariekin enpresekian lan asko egiten dutela dio: "logikoa eta normala da, diru sarrearen importanteak jasotzen dira-eta horrela". Bada, zerbitzu publiko bat dela eta beraz partikularrei ere



IGORLE-APARATUA Iruñan, Juan Moreno berargarra taxian jarri duen igorle-aparatua erakusten.

MIRIAN BITERI

zerbitzu hori emateko betebeharra dutela azpimarratu du Agitaxeko presidenteak.

Ibarreko taxi gidariekin jarri izan gara harremanetan, sistema horren gainean duten iritzia jasoteko. Oñatiko Javier Marquezek

ez du aparatura jarri gura izan bere taxian. "Arduraturatua" dago sistema horren kudeaketarekin. "Teletaxi Vallinak kudeatzen du, Donostialdea SL bidez. Beldurra dugi hori ez ote den ibarrean sartuko", aipatu du. Horrez gain, informazio

gutxi jaso izan dutela dio; hala, bideragarritasun ekonomikoa ez dela ondo argitu uste du.

Juan Moreno bergararrak beste iritzi bat du horren gainean. "Hemendik aurrera, taxi gelto-kiak desagertuko dira eta, beraz,

hor dago etorkizuna", dio. Bada, "erritmo berri hotetara ohitzea kostat egingo dela" uste du. Sistema berria oraindik hastapenean dagoela ere esan du. Hala, aparatuak ez dabilzala behar den moduan ere adierazi du.

LIZENTZIAK, HERRIZ HERRI

Debagoienean 39 taxi lizentzia daude

Taxi lizentzia gehien dituen udalerria Bergara da; 14 ditu. Jarraian, Arrasate dago, hamabirekin. Oñatik sei ditu, Aretxabaletak hiru, eta Eskoriatzak eta Antzuolak bina. Elgetan eta Leintz Gatzagan ez dago taxirik. Lizentzia bat erosteko, normalean, taxilari bat erretiratzen harte itxaron behar da. Lizentzia saldu eta erosi gura duten taxi gidarien arteko adostasuna egoten da. Bada, Arrasaten lehiaketara ateratzen dira eta puntuazio altuena ateratzen duenak eskuratzentzu hori.

Lizentzia kopurua herri bakoitzaren biztanle kopuruaren araberakoa izan da orain arte. Gaur egun, ordea, Eusko Jaurlaritzak beste formula bat du horiek emateko. Formula hori Euskal Autonomi Erkidegoan bakarrik aplikatzen da. Hala, biztanleez gain, enpresa, jatetxe, hotel eta ibilgailu kopurua hartzen da kontuan eta formula hori aplikatuta, udalerri batean zenbat taxi egon behar diren erabakitzentzu da. Bada, kopuru hori gutxi gorabeherakoa da; zerbitzu hori emateko gaitasuna dela-eta, kopuru hori alda daiteke.

TAXIEN FUNTZIONAMENDUA

Lan egiteko modu ezberdinak dituzte gurean

Taxi zerbitzuaren funtzionamendua aldatzen da herrien arabera. Bergaran, esaterako, bezeroak ez du gauean geltokian taxirik topatuko. Hala, gauerdian taxi bat gura duenak, astegunetan, Udaltzaingora deitu beharko du hori eskatzeko. Aste bukaeran, berriz, Ertzaintzara jo beharko du, taxi bat hartu nahi badu behintzat. Oñatiko taxi gidariek, berriz, ez dute horrela funtzionatzen. Zaintza duenak zerbitzuaren telefono zenbakia desbideratuta du eta modu horretan, bezeroaren deia zuzenean jasotzen du.

Oñatin bezala, Eibarren ere txandaka egiten dute lan. Egun osoko zerbitzu eskaintzen dute. Hala, gauean, hiru edo lau taxi egoten dira beti geltokian. Aspalditik funtzionatzen du zerbitzuak horrela. Garai batean, Udalak taxi gidariak derrigortu egin zituen gauean ere zerbitzu eskaintzera. Orain norberak hartzen du erabakia baina, ohitura dauden txandakatzen dihardute. Pozik daude Eibarren duten taxi zerbitzuaren; baita inguruko herriean ere.

UDALA > 2008KO AURREKONTUA

Osokoaren gehiengoak babestu zuen aurrekontua, aldeko 12 botorekin

Oposizioko alderdi nagusiak (PSE-EEk) eta PPk bozkatu zuten kontra; EAJ abstentu egin zen

2008ko aurrekontua aurkezteaz gainera, lau urteotarako inbertsio plana ere aurkeztu zuten

UBANE MADERA > ARRASATE
2008ko udal aurrekontuak aurrea egingo du. GOIENKARIAn iragarritako moduan, udal gobernuaren proposamenaren alde bozkatu zuten Eusko Alkartasunak eta Aralarrek, eta jakina, udal gobernu osatzen duten Eusko Abertzale Ekintzak eta Ezker Batua-Zutik koalizioak. Kontra, berriz, alderdi sozialistak eta alderdi popularrak bozkatu zuten eta Euzko Alderdi Jeltzalea abstentu egin zen.

Hori horrela, aldeko 12 botorekin, kontrako bostekin eta lau abstentziorekin onartu zuten aurtengo aurrekontua egunenear.

SINTONIA ONA

Azpimarragarria da alderdiek nork bere botoak arrazoitzera oduan, alderdi sozialistak izan ezik, gainerako guztiak udal gobernuaren jarrera positiboa nabarmendu zutela. Deigarria da aurreko legealdiarekin alderatuta, oraingoz, behintzat, oposizioaren eta udal gobernuaren artean dagoen sintonia ona.

Esaterako, Euzko Alderdi Jeltzalea abstentu egin zen aurrekontua bozkatzerakoan. Baino horrekin batera eta Rafael Uribarren zinegotzi eta diputatuaren ahotan, aurrekontuak lantzeko eta negoziatzeko orduan, udal gobernuaren "eskuzabaltasuna" nabarmendu zuen alderdi jeltzaleak. Gaineratu zuen eguneko batzarrean abstentu egin baziaren ere, ikusitakoa ikusita, aurrea begira "elkarren artean akordioak lortzeko aukera" izango zela pentsatzen zuela.

Sozialistei dagokienez, gainerako alderdiek esandakoaren kontrakoa aditzera eman zuten, hau da, eurek ez dutela parte hartzeko aukerarik izan aurrekontuak egituratzeko orduan. Hala adierazi zuen Carmen Atxutegi sozialistak, egunean bozramaile lanak egin zituen zinegotziak. Udal gobernuak horren bestetan aldarrakatzen duen demokrazia eta gardentasunik ez dela egon gaineratu zuen.



SAIOLAN Lau urterako inbertsio planaren barruan, Musika Etxea eta Industria Museoa egitea aurreikusi du Udalak; tokia: Saiolan eraikina.

IMANOL SORIANO

ALKATEAREN BALORAZIOA

Edozelan ere, aurrekontua gehiengoz onartu zuten eta gainera, kritika positiboekin. Ino Galparsoro alkateak esandakoaren arabera, lan handia egin dute hori lortzeko: "Baloratzen dugu positiboki baina nik uste dut saiakera berezia egin dugula beste alderdien partehartzea ziuratzeko eta euren ekarpenak ere proiektuan integratzeko".

Bestalde, eta kontrako boto edo kritiken aurrean, alkateak bestelako arrazoik eman ditu: "PPk planteatu du presoen familiei ematen zaien diru ekarpene dela-eta berak ezin dituela aurrekontuak onartu. Ikuerpuntu desberdinak ditugu hor; izan ere gure ustez partida hori sinbolikoa besterik ez da, familiek jasotzen duten

eta ez dagokien zigor baten kontentsazio sinbolikoa. Berak ez du hori konpartitzen eta hor dugu desberdintasun importantea".

Alderdi sozialistak esandakoaren aurrean, berriz, zera eman du aditzera Galparsorok:

DATUA

44,5

MILIOI EURO

2007ko aurrekontuarekin alderatuta, %9,1 igoko da 2008koan:
44.511.562 eurokoa da. Hortik 42.174.106 euro dira Udalaren dako, 2.493.110 euro Iturbiderendako eta 1.749.900 euro AUKEArendako.

2008tik 2011ra arteko inbertsio plana

KOPURUA EUROtan	
Urbanizazioak: Erguin, Grupo San Juan, San Josepe...	9,4 milioi
Zerrajera 2 gunearren urbanizazioa	6,4 milioi
Udal azpiegiturak (ura, argiteria, bide publikoa...)	6 milioi
Erlajuaren eraikina (Musika Etxea eta Industria Museoa)	5 milioi
Elmako eraikina birgaitzeko	4 milioi
Abaroa erretiratuendako etxe berria egiteko	4 milioi
Iturbide Egoitza birmoldatzeko	3,8 milioi
Zalduspe urbanizatzeko	3,6 milioi
Alde zaharreko urbanizazioak	3,2 milioi
AUKEAko inbertsioak	2,2 milioi
Udal artxibo berria	2,2 milioi
Aldain parke berria egiteko	2,1 milioi
Biltegia eta Euskaltegia	1,9 milioi
Altamira-Ferixaleku igogailua	1,5 milioi

"PSE-EEren aldetik aldez aurretik baldintza moduan ipini dute Eudelek udal hautetsien, nire iritziz, soldaten gaineko plantearaztu duena aplikatzea. Beraz, ez dugu izan aukerarik eurekin beste eztabaidearik izateko. Beste alderdiak konpartitzen ez duen aldez aurreko baldintza bat ipintzen badute, ez dago aukerarik euren partehartzea gauzatzeko".

AURREKONTUA NODIK NORA

Egueneko batzarrean onartutakoari begiratzen badiogu eta kopuruei dagokienez, berriz, 2008an 44,5 milioi euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udalak. Hortik kopururik altuena Udalak berak erabiliko du: 42,1 milioi euro; Iturbide egoitzarendako, berriz, ia bi milioi euro izango dira eta AUKEArendako milioi bat eta zapiezun mila euro pasatxo.

GIZARTE ZERBITZUAK INDARTUTA

Bestelakoaren artean, EB-Zutik koalizio gobernukideak aurrekontu horren "izaera soziala" azpimarratu gura izan zuen, esanez, helburu nagusia duela "udalerrian sortzen den aberastasuna banatzea". Hori baieztagatzeko, Joseba Ugalde bozeramaileak aditzera eman zuen Zerbitzu Sozialendako diru "partida garrantzitsuak" bideratuko dituztela, besteak beste etxez etxez laguntzarako, larrialdi laguntzarako edo herrialde behartsunei laguntzeko %0,7a ematea.

Horrekin batera, nabarmendu

zuen inbertsioen artean badela partida bat Herritarren Partehartza bultzatzeko plana lantzeko. Eta oro har begiratuta, Ugaldeko adierazi duen "udale-riaren bizi kalitatea hobetu" gura dutela, "justizia soziala, berdintasuna eta iraunkortasuna" bultzatzeko lan handiagoa eginez.

DIRU GEHIEN, ZERBITZUETARA

Udal aurrekontuaren banaketari dagokionez, 13 sail edo batzorde diu gaur egun Udalak. Laburazalduko dugu segidan zela banatuko dituzten diruak batzorde horien artean.

Hala, 13 sailon artetik Obra, Zerbitzu eta Auzoen batzordeak eramango du aurrekontuaren zatirik handiena: %30 pasatxo. Hirigintza etorriko da gero, %18 pasatxorekin. Eta Osasun batzordearentzako izango da aurrekontuaren %14,5.

Handitik txikirako ordenarekin jarraituz, Kultura eta Kiro-lak etorriko dira gero, aurrekontuaren %10a pasatxo hartuko du sail horrek. Pertsonal edo langile kontuendako, berriz, izango da aurrekontuaren ia %6a eta Ingurumena eta Enplegua izeneko batzordeari egokituko zaio ia %5,5a.

Eta beste sail batzuk aipatzen arren, euskara sailak hartuko du aurrekontuaren %3,26a, hezkuntzak ia %2a, gazteriak %1,42a eta aurrekontuko zatirik txikiena Emakume Sailaren dako izango da: %0,73.



BATZARRA Zapatuan batzarra egin zuten Artekale eta Goenkaleko hainbat bizilagunek.

JOSETXO ARANTZABAL

HIRIGINTZA > ERDIGUNEAREN ANTOLAKETA

Soilik oinezkoendako jarri dute Goenkalea

Erabakiak bizilagun batzuen kexua eragin du, batik bat, ezingo dutelako han aparkatu

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Goenkalea soilik oinezkoendako kale da duela bi astetik hona. Orain arte ibilgailuak handik igarotzeaz gainera, autoa aparkatu ere egin izan dute kaleska estuan hainbat herritar eta bizilagunek. Bada, oinezko bihurtzearekin batera, hori ere ezingo da egin.

Horrek guztiak ezinegona era-
gin du Goenkaleko eta Artekaleko bizilagun batzuen artean; batik bat, autoa aparkatzeko lekuak galdu izanak, Fernando Salinero Artekaleko bizilagunak zera azaldu digu: "Artekalea egoitzeko lanak egin zituztenean esan zuten oinezkoendako bihurtze zela eta ez da hala izan. Ibil-

gailuez gain oinezkoak ere Arte-
laketik igarotzen dira eta ez dago aparkatzeko lekurik. Bestalde, Goenkalea hain mugimendu gutxiko kalea izanik, zergatik bihurtu dute oinezko eta gainera aparkalekuak kendu?"

ZAPATUAN BATZARRA
Kezka horren harira, Artekaleko eta Goenkaleko bizilagunek batzarra egin zuten zapatuan. 30 lagun inguru elkartu ziren eta egunean udaletxera joatekoak dira, Agurne Barruso alkatearekin egotera. Salineroen hitzetan, "Goenkalean aparkatu ahal izatea eskatzea da gure asmoa. Bestalde, gurekin bigarren bilera bat

egin baino lehen adostu zuten kalea ixtea, gure iritzia kontuan hartu barik".

UDALAREN ERANTZUNA

Alkateak azaldu duenez, Goenkalea oinezkoendako bihurtzeko erabakia aurreko Udal Gobernuak hartu zuen eta eurak era-
baki hori exekutatu baino ez dute egin, bizilagunei jakinarazi eta gero. Bestalde, gehitu du kalea trafikora ixteko erabakia prozesu zabalago batetan barruko urratza dela, alde zaharra oinezkoendako egiteko prozesuan.

Aipatutako bi kaleetan baka-
rrik ez, "aparkalekuaren arazo-
ari irteera orokorra" eman behar zaiola esan du alkateak. Mugikor-
tasun diagnostikoa egina dutela aurreratu du eta, orain, ekintza plana zehaztea falta zaiela.

Amaia Zabaleta > Agorrosin Ekintza Guneko gerentea

"Eguneko, batez beste, 900 erabiltzaile sartu zen Agorrosin Ekintza Gunean, iaz"

M.B. > BERGARA
Kirlo zerbitzuen gaineko tasa berriak onartu ditu Udalak. Horrek, beste-
an beste, Agorrosin Ekintza Gune-
ko erabiltzaileen abonuetan eragin-
du. Aldaketak nabarmenak izan-
dira; hala, sortu ahal izan diren
zalantzak argitzeko asmoz Amaia
Zabaleta Agorrosingo gerenteare-
kin jardun dugu.

Zein dira aldaketa nagusiak?
2007an abonu bakarra genuen,
prezio bakarrarekin, nahiz eta
adinaren arabera prezioa aldatu
egiten zen. Aurten, berriz, 0-17
urte bitarteko baziideentzat tari-
fa bakarra dago-adinaren arab-
rako banaketarekin-. Baino 18
urtetik gorako baziideentzat abo-
nua hiru zatitan banatu da. Alde

batetik, bainuetxeko abonua dago: ordaintzen den epean soili-
k dago bainuetxea erabiltzeko aukera. Hileko 10 euro da prezioa eta 110 urtariletilik abendura arte.
Bestetik, abonu arrunta dago eta zera eskaintzen du: Agorro-
singoa *fitness* aretoa erabili eta bertako monitorearen aholkul-
ritza jasotzea eta baita Agorrosin-
go igerilekuak eta berdegunea eta Labegaraietako aldagelak eta boulderra erabiltzekoak ere.

Horrez gain, kirlo instalakun-
tzak alokatzeko eta ekintzetar-
ko prezio bereziak eskaintzen
ditu eta baita abantailak Deba-
goieneko kirlo abonuan ere.

Azkenik, abonu osoa dago.
Horrek, abonu arrunta eta bai-
nuetxeko abonua batzen ditu.

Zergatik erabaki duzue aldake- ta horiek egitea?

2007an baziideek egindako iradokizunetan eskaera hori ager-
tu zen. Hala, gure politikoei urte-
ko tasak hausnartzen zeudenean
iradokizun horiek helarazi geniz-
kien eta 2007an zegoen abonu
bakarra hiru abonutan bihurtzea
erabaki zuten.

Zer egin behar da abonu berria egiteko?

Iazko abonatu guztiei baja
eman genien 2007ko abenduaren
31n. Hortaz, abonatu izateko Ago-
rossingo harreratik pasatzea ezin-
bestekoa da alta emateko.

Alta emateko momentuan
bezero bakoitzari informatuko
zaio dituen abonu desberdin



Amaia Zabaleta.

JASONE ZABALA

Aldaketak ematen direnetan
zalantzak sor daitezke erabil-
tzaleen artean. Zein izan dira
ohikoenak?

Baja noiz jakinarazi behar
den. Procedura da: aurreko hil-
aren 25a baino lehenago baja orria
sinatura egon behar da.

**Ze balorazio egiten duzue Ago-
rrosinen lehenengo urteaz?**

Urte osoan barrena 5.000 bat
lagun egin ziren baziide. Ikast-
roei dagokienez, 1.200 leku egon
dira beteta urte osoan eta arra-
kasta handien izan zuten *aero-
dance*-ak eta areto txirrindua.

Eguneko sarrerei dagokie-
nez, batez beste 900 lagun sartu
ziren Agorrosinen ikasturtean
barrena eta uztalean, 1.300 iza-
tera ere iritsi ziren.

Ze aurreikuspen duzue 2008rako?

Urte guztian iazko baziide
kopuru bera izatea edo abonu
zatiketarekin abonatu gehiago
izatea.

INAUTERIAK > EGITARAUA GERTU

Oñatz taldeak Luzaideko Inauteria berreskuratu du

Aratusteetako egitarauan erakusketa eta antzerki emanaldiak jaso dira

Aratuste-martitzenean pailazo emanaldia egongo da kirodegiko pilotaleku

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Inauterietako egitaraua gertu du kultura batzordeak, eta dagoeneko etxez etxe banatu dute.

Otsailaren 1etik 5era ospatu diren Inauterietako berrikuntza nagusiena Oñatz dantza taldeak antolatu duen Luzaideko Inauteria dira. Hamahiru urte pasa dira Aratuste-zapatuan Luzaideko Inauteriarik egiten ez zela. Aratuste-zapatuan indarra emateko 130 lagun irtengo dira kalera otsailaren 2an.

ANTZERKIAK
Helduendako eta gazteendako antzerki emanaldiak ere iragartzen dira. J.P Producciones-en eskutik *Cincuentones* izeneko emanaldia aurreikusten da otsailaren 1erako. *Mi querido Klukowsky* telesaileko Juanfri Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregon dira protagonistak.



'CINCIENTONES' Juanfri Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregon dira protagonistak.

GOIENKARIA

Bestalde, haurrendako bi aukera egongo dira Aratusteetan: Glu-Glu taldearen eskutik *Handidan*, otsailaren 2an, arratsaldeko 5etan; eta, otsailaren 5ean, Zirka Zirkus pailazoen eskutik, *Zorionak zuri* ikuskizuna kiroldegian.

Halaber, gauetako giroa alaitzeko musika emanaldiak egongo dira, Orots taldearekin erromeria, eta Euskodiskoteka.

ERAKUSKETA

Inauterietako kultur egitarauan bi erakusketa jaso dira. Haietako bat, Aloña Mendi elkarteko mendi sailak antolatu du: Centre Excursionista de Lloret de Mar-eko argazki lehiaketaren X. urteurrenko argazkiak biltzen dituen erakusketa. Otsailaren 4tik 17ra egongo da ikusgai kultur etxeko erakusketa gelan, arratsaldez, 18:30etik 20:30era.

Beste erakusketa zaborraren arazoaren inguruko da, eta zabalik egongo da otsailaren 3ra arte.

Bestalde, Aratuste-domekan Musika Bandak kontzertua emango du Santa Ana antzokian, 12:30ean. Iaz egindako modura, Parrokiako Misio taldeak txokolatada solidarioa egingo du Aratuste-martitzenean. Txokolatada Foru enparantzan izango da, 18:30ean hasita.

Emakumeen futbol taldeak arropa eta babesle berriak ditu bi urterako

Oñatiko Lana enpresa izango da Aloña Mendik kadete mailan duen emakumeen futbol taldeko babesle berria. Hilaren 19an egindako aurkezpenean esandakoaren arabera lankidetza hitzarmena bi urterako izango da. Futbol saileko presidente Javi Azpiazu, Aloña Mendi elkarteko presidente Anton Inza, nesken taldeko entrenatzaile Jose Mari Lazcano, taldeko jokalariak eta Lana enpresako presidente Mirari Zilaurren egon ziren aurkezen ekitaldian. Fraka motz, galtzerdi, kirol-jertse eta txamarra berriak ditu nesken taldeak.



ALOÑA MENDI

> MENDIA
'Mendi astea'
ospatuko da
otsailaren 5etik 9ra

Aloña Mendik antolatuta, *Mendi astea* ospatu da otsailaren 5etik 9ra. Jose Carlos Tamayo alpinista, Adolfo Madinabeitia eskalatzailea eta Iñaki Otxoa de Olza alpinistaren ikus-entzunezkoak iragartzen dira. Hiru saioak Kultura etxeko zinema aretoan izango dira, arratsaldeko zapziak eta erdieta. Era berean, argazki erakusketa, zine-klub saioa eta Oñatiko III. Boulder Txapelketak aurreikusten dira.

> ERAKUSKETA
Zaborraren inguruko erakusketa domekara arte

Domekan itxiko da Debagoieneko Mankomunitateko Inguruemen sailak antolatutako *Amets gaiztorik ez!* erakusketta. Kultura etxean dagoen erakusketa arratsaldez zabaltzen da, 18:30etik 20:30era.

Zaborraren inguruko erakusketaren helburua guk sorzten dugun hondakin gainerako hausnarketa egitea da. Era berean, erakusketa bost eduki multzo ezberdinetan banatzen da.

> HITZALDIA
Muko ikasketa eskaintzaren inguruko hitzaldia

Txantxiku Ikastolak gurasoen prestakuntzarako antolatu duen hitzaldi zikloaren barruan *Mondragon Unibertsitateko ikasketen eskaintza* izeneko hitzaldia iragartzen da eguztenerako.

Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetako ikasleendako eta haien gurasoen-dako hitzaldian, Eteo, Huhezi eta Goi Eskola Politekniko-ko ordezkariek hitz egingo dute. Hitzaldia euskaraz izango da, 18:30ean hasita.

> ERRETIRATUAK
Eguen-gizen egunerako txartelak salgai daude

Pake Leku erretiratuen elkartek Ostegun-gizen eguna ospatu du egunean, hilaren 31n. Hala, egun horretan egingo den askarirako txartelak aldez aurretik erosit behar dira, eguztena baino lehen. Txartela erretiratuen elkarteko tabernan egongo dira salgai, 2,50 eurotan.

Eguenerako gertatu duten egitarauaren arabera, askariaren ondoren, dantzaldia egingo dute erretiratuen elkartean bertan.



SARIDUNAK Sari banaketa amaitu ostean, taula gainera igo ziren saridun guztiak.

MIRARI ALTUBE

ARETXABAleta > LORAMENDIREN LITERATURA LEHIAKETA

Literatura lehiaketan 245 lan jaso dituzte

Egubakoitz arratsaldean sariak banatu zituzten udaltxe zaharrean; jendea asko bildu zen han

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Egubakoitzean XIX. Literatura Lehiaketako sariak banatu zituen Loramendi Euskara Elkarteak. Udaltxe zaharreko aretoa lepo bete zen. Ez da harritzekoa. Guztira, 245 lan aurkeztu dituzte, 8 eta 16 urte arteko gaztetxoek egindakoak. Hala, pozik azaldu dira Loramendikoak literatura lehiaketa izandako arrakastarekin.

Zortzi eta hamabi urte artekoen 187 ipuin eta bertso jaso izan ditu Loramendik. Hala, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 90 ikaslek parte hartu dute. Aurkeztu diren 72 ipuinen artean, Matil-

de Aizpuruarena gailendu da. Berotsan, berriz, Ibon eta Eider Altube lortu dute lehenengo saria. Hirugarren zikloko 97 gaztetxoei dagokionez, Jon Davilak idatzi du ipuin onena; Beñat Arrietak, berriz, bertso hoberenak. 81 lan aurkeztu dituzte bertsoen atalean.

DBH-KO 53 GAZTE

DBHkoek ere gogotsu ibili dira. Lehenengo zikloan, Mikel Umerrezek irabazi du lehenengo saria bertsotan. Leire Izagirrek, berriz, komiki politena egin duela era-baki dute Loramendikoek. Grabaketa onena Asier Lazkano eta

Danel Gartzarena izan da, Hai-zea Uribetxebarriaren aurretik. Amadiozko gutun ederrena Kitzitz Zillaurrenek idatzi du.

DBHko bigarren ziklokoek lau komiki egin dituzte. Zuriñe Romerok eta Ana Zelaiak irabazi dute. Amadiozko gutunen saria Lide Arenazarandako izan da eta grabaketaren Nagore Uriarrendako. Ander Mendikutek egin du, azkenik, bertso onena.

Ekitaldia amaitu aurretik, Karmele Igartuari, abenduan Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Felipe Arrese Beitia poesia saria jaso duen aretxabaletarrari omenaldia egin zioten Kurtzebarri eskolako ikasleek. Udalak, berriz, oroigarria eman zion Igartuari.

ARETXABAleta-ESKORIATZA > SAHARAREN ALDEKO KANPAINA

Sahararrendako jakiak biltzeko kanpainarekin amaitu du Iesbaak

Kurtzebarri eta Basabeazpi ikastolan eta Aretxabaletako Eroski Centerren dilistik, atuna, azukrea, arroza eta konpresak jaso ditu Iesbaa elkartea

M.B. > ARETXABAleta-ESKORIATZA
Ohikoa denez, Iesbaa elkartea jakia biltzen izan da azken hilabetean, Tindufeko kanpamentuetan dauden sahararrendako. Kan-

pina amaitu da dagoeneko eta aste bukaeran jasotakoak paketetan sartzen ibili dira elkartekoak. Dilistik, atuna, azukrea, arroza eta konpresak bildu dituzte.

Kanpaina abenduaren 24an hasi zen Aretxabaletako Eroski Centerren, eta Kurtzebarri eta Basabeazpi ikastoletan urtarrilean ekin zioten. "Kanpaina nahi-

> ARETXABAleta
Herriko plazako hornidura eta saneamendu lanak esleituko ditu gaur osoko bilkurak

Gaur arratsaldean ohiko osoko bilkura egingo dute Aretxabale-tako udaltxean. Herriko Plaza hornidura eta saneamendu proiektuaren lanen esleipenaren egingo da lehenengoz, aurreko bilkuretako aktak onartu ostean. Lan horiek Herriko Plaza beritzeko proiektuaren barruan sartzen dira. Horretarako, 1.074.292 euroko aurrekontua du Udalak.

Bigarrenik, hezur muinari buruzko Iturrigorri elkartearen eskaera aztertuko dute udal ordezkar politikoek. Azkenik, nagusien egoitz berria egiteko Irsailen dokumentuak behin betiko onartuko dituzte, ondoren Diputazioa bidaltzeo. Pleno aretoan emango diote hasiera bilkurari 18:00etan.

ARETXABAleta > KULTUR ETXE BERRIA

Kultur etxe berriaren izena hautatzeko lehiaketa zabalik

Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 11n amaituko da

M.B. > ARETXABAleta

Kultur etxe berriari izena jaritzeko proposamenen lehiaketa deitu du Aretxabaletako Udaleko Kultura sailak. Ideiak otsailaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira Iralabarri plaza kultur etxearen edo udaltxean.

Lehiaketa horretan parte hartzeo oinarriak eman ditu Kultura sailak ezagutzera. Hala, edozeinek har dezake parte. Hori bai, izena aukeratzerako orduan, izen horren zergatia arrazoitua joan beharko da. Gura duenak logo eta irudia ere aurkez daiteke.

Alkateak, kultur zinegotzi eta teknikariak eta lehiaketa horretarako izendatzen diren pertsonez osatuta egongo da epaimahaia. Horren iritzia datorren martxoaren 11n jakinazikoa da. Saria 200 eurokoa izango da



IZEN BARIK Kultur etxe berrirako izena aukeratu behar da.

GOIENKARIA

ko eskas hasi bazen ere, apurka hobetzen joan da", jakinarazi du Iesbaa elkarteko Olaia Sagredok. Bada, bildutakoaren gaineko daturik ez du oraindik eman. Asteotan jakingo dituztela esan du.

KAMIOIA, ASTE BUKAERAN

Iesbaaren ekimena Euskadiko Karabana delakoaren baitan sartuta dago. Hala, datorren astebukaera, kamioi bat etorriko da ibarrera, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan jasotakoak kargatzeko.

Ondoren, otsailaren 16an, Bilbotik abiatuko da karabana, Alacantantz. Itsasontzia hartu eta Oraineraino joango da. Hango portuan Media Luna Saharaui taldeko jendeak beste kamioi bat hartuko du eta kanpamentuetara eramango ditu jasotako produktuak.

Kanpaina horrez gain, beste hainbat ekitaldi antolatzen ari da Iesbaa. Horien artean, otsailaren 24an, Aretxabaletan egingo den herri krosa dago.

BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta

ELGETA > ARATUSTEAK

Egunotan makillaje ikastaroa egin dute hainbat lagunek

Aurreko astean hiru saio egin zituzten eta eguztenean egingo dute helduendakoa

Aratuste barikuan kalejira egingo dute Herri Eskolako umeek eta festa izango dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Udalak antolatuta aurreko astean Aratusteetan aurpegia ondo margotzeko ikastaroa egin zuten hainbat lagunek. Trikimalua interesgarriak jaso zituzten egingo dako hiru saioetan.

Eguaztenean, hilak 30, azken saio egingo dute zeramika gelan. Kasu honetan helduendako ikastaroa izango da. Bistan da Aratusteak gero eta gertuago dau dela.

ARATUSTEETAKO BARIKUAN
Otsailaren 1ean, barikuan, ospatuko dira Aratusteak Elgetan. Herri Eskolako umeek kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena 15:00etan hasita. Zirkoa da aurten eskolakoek aukeratu-



TRIKIMAILUAK Aratusteetan aurpegia ondo margotzeko trikimaluak eman dituzte ikastaroan.

JOXEKO ARANTZABAL

tako gaia eta mozorro koloretsuak prestatu dituzte. Kalejiran ondotik jolasak eta txokolate-jana egingo dituzte Guraso

Elkartea antolatuta. Eguraldi onarekin plazan egingo dira, txa rrarekin frontoian. Udalak, bere aldetik buruhandiak (17:30) eta

suzko zenena (19:30) antolatu ditu. Bitartean, 18:00etatik 19:00etara disko festa izango dute umeek Espaloia Kafe antzokian.

ARAMAIO > ARATUSTEAK

Eskolako haurrak hasi dira Aratusteetako jantziak egiten

Txinatar jantziko dira aurten eskolako umeak eta herensuge artean egingo dute urteroko kalejira

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Herensuge artean harrapatu ditugu aste honetan San Martin eskolako haurrak. Izan ere Aratusteetan txinatarrez mozorrotuko dira eta horretarako, txinatar kulturan horren ohikoak diren herensugeak egiten dihardute. Otsailaren 5ean, urtero moduan, kalejira egingo dute eskolako haurrek, eguerdiko ordu biak inguruan. Txinatar dantzak entseatzen ere ari dira egun hauean. Izan ere, Aratusteetako martitzenean, kalejiraren ostean, plazan eskolako talde bakotzak bere mozorroaren aurkezpena egingo du eta bizpahiru dantza egingo dituzte. Gero, berriz ere kalej-



ARATUSTEAK Eskolako umeak txinatarrez mozorrotuko dira.

SAN MARTIN ESKOLA

ran, eskolara itzuliko dira eta eskolako jantokian eta aterpean sukaldariek txokolatea eta bizkotxoak eskainikoa dizkiete ume guztie. Arratsalde guztian zehar Txinako eta bertako musikak lagunduta jai giroan ibiliko dira eskolako umeak.

SANTA AGEDA

Otsailaren 4an, Eskolako haurrak Aramaiko auzoetara joango dira kantuan. Eskolatik azaldu dute arrakasta handiko ekin-tza izaten dela eta limosna ederra jasotzen dutela:urrak, gaitetak, txorizo eta abar.

LEINTZ GATZAGA > ERROLDA

Errolda ikusteko aukera, bukatzean

205 lagunek daukate martxoaren 9ko hauteskundeetan bozkatzeko deia; horretarako datuak eguneratuta izan behar dituzte

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur, urtarrilak 28, bukatuko da errolda datuak begiratzeko epea, hau da, norberaren datuak eguneratuta dauden ikusteko epea. Izan ere, martxoaren 9an egingo diren hauteskundeetan bozkatu ahal izateko datuak behar bezala izan behar dituzte herritarrek. Horregatik, errolda kontsultatzea komeni da, batez ere azken urtean bizileku aldaketa egon bada.

Erroldako datuak ikusi gura izanez gero ezinbesteko da nortasun agiria eroatea, eta Gatzagako udaletxeko harrean erakutsi behar da. Bertan egingo dute kontsulta, eta arazoren bat egonez gero edo aldatetaren bat egin gura izanez

gero, eskaera egingo du harre-rako teknikariak. Gaur da eska-erok egiteko azken eguna, eta udaletxeen, goiz guztian -09:00etatik 13:30era- egongo dira herritarren zerbitzura.

BOZKATZEKO DEIA, 205 LAGUNEK

Gatzagan 263 lagun daude egun erroldatuta, eta horietatik 205ek izango dute bota oemateko eskubidea martxoaren 9an. Hauteskunde mahai bakarra egongo da San Miguel plazan dagoen Haur Eskolan. Eta aurrez, hauteskunde-mahaiko burua eta bi mahai-kideak hautatu behar dituzte herritarren artetik. Zozketa egingo du horretarako udalatzak otsailaren 9tik 13ra bitartean, eta ondoren hautatutakoei jakinaraziko diete.

ANTZUOLA

Eskolako umeendako Inauteri jaia izango da

Egubakoitzean mozorrotuta elkartu eta frontoian egingo dute txokolate jana

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Inauteri usaina egubakoitzean iritsiko da Antzuolara. Izan ere, umeak mozorrotuta joango dira bazkalostean eskolara. Hirugarren eta seigarren mailara arteko umeek taldeka ikuskizunak egingo dituzte eta bigarren mai-lakoak ikusle gisa joango dira ekitaldira. Txikienek, aldiz, mozorro desfilea egingo dute eskolan, beste tokiko batean.

Ondoren, eskolako umeak frontoira joango dira 16:00etan eta txokolate eta torrada jana egingo dute han. Inauteri jaia borobiltzko Potxin eta Patxin pailazoaren saioa izango da pilotaleku bertan 17:00etan.

ENTSEGUAK

Bestalde, Inauterietako domekan egingo duten dantza saiorako hasiak dira entseguekin. Dantzak gogoratzeko lehen saioa zapataun egin zuten eta hurrengoa datorren zapataun izango da, 11:00etan.

Kirola



> FUTBOLA

Mondrak 2-1
hartu zuen
mendean
Eibartarrak >**16**

> SASKIBALOA

MUK azken
minutuetan
irabazi zion Easori
(79-67) >**18**

> PILOTA

Mendizabalendako
denboraldiko
hirugarren
txapelketa >**19**

> ESKALADA

Sergio Maiztegi
elkarritzetatu
dugu, eskaladan
aditua >**20**



INFANTILAK Erretratuan, infantil mailako Ainara Gonzalez taldeko saioan buru-belerri; kategoria horretan Ariznoakoek ez zuten lehiakiderik izan.

XABIER URTZELAI

GIMNASIA ERRITMIKOA > ESKOLA ARTEKO A MAILAKO TXAPELKETA

Taldeka, Bergarako Ariznoako gimnastak nagusi uarkapen

HIRUTIK HIRU

Gazte mailan,
Bergarakoak izan ziren
zintekin eta uztaiekin
trebeenak

KONTRARIO BARIK

Kadete eta infantil
mailan Ariznoako
neskek ez zuten izan
norekin lehiatu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Zapatuan egin zuten Uarkapen Eskola Arteko A mailako Txapelketa, eta gazte mailan, taldeka egindako saioetan Bergarakoak nagusitu ziren -Maialen Legorburu, Itsaso Garmendia, Ainize Lizarralde, Olaia Gaztirain eta Saioa Ruiz-. Arrasateko Dragoi Taldea izan zen bigarren -Leire Gonzalez, Leire Poyato, Jone Goikolea eta Saioa Arriola-, eta Azkoitiko Zubiaurre eta Donostiarra La Salle sailkatu ziren ondoren -epaileek sailkapenaren berri eman zuten, baina ez zituzten puntuaketak argitaratu, gaur egingo dute hori-. Hala, Dragoi taldeko arduradun Edurne Elkorok onartu moduan, Ariznoak akats gutxiago egin zituen: "Gu oso pozik geratu gara egindako lanarekin, baina bai, esango nuke Bergarakoek gu bai- apur bat aurreratuago daude-

la. Dena dela, ez dutuste sailkapenean alde handia egongo denik".

Bi talde horien artean lehia polita dute, iaz elkarren kontra jar-dun ez bazuten ere, orain dela bi urte parean egon zirelako indarrak: "Orduan Bergarakoendako izan zen Gipuzkoako Txapelketa, eta gu gailendu ginen Euskadikoan". Hori horrela, Elkorok onar-

tu moduan bigarren fasean taldeek ariketa landuagoak aurkeztuko dituzte: "horrelakoetan epaileek puntuazio altuagoa ematen dute. Izan ere, zapatuko txapelketa ikasturteko lehena izan zen, eta talde bakoitzan non dagoen ikusteko balio izaten du. Aurrerantzean izango diren txapelketetan taldeek gehiago arriskatuko dute".

70 GIMNASTA LEHIAN

Guztira 70 gimnastek hartu zuten esku zapatuan, goiz eta arratsalde egindako txapelketan. Aipatu moduan, taldeko saioetan gazte mailan Ariznoak irabazi zuen, eta infantil eta kadete mailan ere Ariznoakoendako izan zen saria, ez zelako talde gehiago aurkeztu -Euskadikoan izango dituzte kontrario-. Infantiletan Cristina Etxeberria bergararra lehena sailkatu zen, eta kadetetan Onintza Legorburu bigarren sailkatu zen. Gazte mailan, bakarka, Dragoiko Leire Gonzalez bigarren izan zen, eta Leire Poyato hirugarren.

Sailkapenarekin itsutsu barik, deigarriena izan zen gimnasten aurpegiak saio bakoitza amaitutakoan -gaztetxoenek, batez ere erakusten zituzten urduritasun eta poztasun keinuak. Orain, entrenatzent jarraitu behar.

EDURNE ELKOROK ESANAK

**"Puntuaketan nahiko
parean izango gineng
baina egia da
Bergarakoek guk
baino akats gutxiago
egin dituztela,
aurreratuago daude"**

**"Hurrengo fasera
begira talde guztiekin
gogor egingo dute lan,
eta seguru gimnastek
zaitasun handiagoko
arietak egingo
dituztela"**

PREFERENTE > MONDRA-EIBARTARRAK

Julen Herizen bi pasek eman zioten garaipena Mondrari

MONDRA
2-1
EIBARTARRAK

Mondra > Calvo, Andoni, Loiti, Laspuri, Arazkonaga, Gotzon (Garmendia, 65. min), Keixi, Heriz (Maikel, 83. min), Murua, Ekain, eta Alzola (Aranbarri, 85. min).

Eibartarrak > Iraola, Jozifer (Otxoa, 46. min), Guruzeta, Sarasua, Larrategi, Fran, Aspiazu, Mutiola, Iñigo (Alvarez, 70. min), Arizaga eta Sanchez (Artetxe, 70. min).

Bestelakoak > Epailea arazo barik.



GOLEGILEA Gol ederra egin zuen Alzolak buruz; partidu txukuna egin zuen Bergarakoak.

JOSETXO ARANTZABAL

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Lehenengo itzulian falta izan zaion zortea izan zuen Mondrak zapatuan. Markagailuan aurretek (2-1), Eibarko taldeak hainbat gol aukera izan zituen bigarren zati amaieran, baina zutoinean jo zuelako, edo Calvo ate azpian zegoelako, armaginek ez zuen 2-2koan egin. Orain dela bi hilabete kontrarioak berdindu egingo luke partidu hori, baina orain ez.

Preferenteko azken postuetan zelan ote dauden galdeztetza behartzen duen talde horietakoa da Eibarkoa. Hasierako hamabost minutuetan kanpotarrek agindu

zuten zelaian, eta Gordobilen mutilak noraezean ibili ziren. Aspaldian, baina, gola erraz egiten du Mondrak. Hala, eskuin hegaletik egindako barneratzean Julen Herizek area barruan pasea eman zion Muruari; horrek, odol hotz, lehenengoan bota beharrean bigarrenean egin zuen (1-0).

Aldeko golak Arrasatekoak esnari zituen, eta orduan egin zituzten jokaldi onenak. Ekainek zorrotz atera zituen kornerak, baina Herizen beste pase bat eisker egin zuen Alzolak 2-0ekoa. Oraingoan ezker hegaletik, pasea ona, eta buruz egindako errema-tea hobea.

BIGARRENA, AHAZTEKOA
Gaitzena eginda zegoenean hasi zen, baina, Mondra opariak egiten. Baloiaren jabe izateko gaitasun barik, Eibartarrak hazi egin zen. Penaltiz egin zuten 2-1ekoa, eta izan zuten beste gol aukerarik. Aurreratu dugu, baina, zortea zorrak ordaintzen hasi dela.

PREFERENTE > ARETXABAleta-ZESTOA

Rubenen golak justizia egin zuen Zestoaren aurrean

ARETXABAleta
3-2
ZESTOA

XABIER URTZELAI > ARETXABAleta
Luzapenean egin zuen Aretxabaletako atzelari Rubenek garaipenaren gola; txalo zaparrada harmailetan. Ordura arte, Zestoa UDAk egindako opariei esker zen bizirik, eta bazirudinetan Arenazaren mutilak berdin ketarekin konformatu beharko zirela. Baina ez, ezziren konformatu. Komeni dena baino gehiago arriskatuta, Aretxabaletakoek aurerrera egin zuten azken minutuetan, eta gol aukeren festa etorri zen; baina, ate aurrean ezin asmatu. Azkenean, Rubenek egin zuen boleaz gola.

Zestoa zain egon zen partidu osoan. Aretxabaletak hartu zuen jokoak antolatzeko ardura, eta lehe-



ESKUINETIK UDAKO Piru, eskuin hegaletik jokaldia egin guran.

JOSETXO ARANTZABAL

nengo zatian 7-8 paseko hainbat jokaldi egin zituzten. Erikok egin zuen lehenengo gola, baina ezustean etorri zen Zestoaren erantzuna, ate aurrean buruz egindako errematearekin (1-1). Aretxabaleta ez zen behera etorri, buruz egin zuen Arriagak -aipatzekoak egin zituen joko aldaketak - 2-1ekoa baina epaileak joko kanoz kanpo adierazi

zuen. Horrelako jokaldi batean egin zuen Piruk 2-1ekoa, eta ez zirudi Zestoak arriskua sortzeko gaitasuna zuenik. Luze jaurtitako baloi batean, baina, Elgarrestak ez zuen ondo neurtu irteera, eta penaltia egin zion Zestoako aurrelarriari (2-2). Esan moduan, aretxabaletarrak bigarren kolpe horretatik erre kuperatzeko gauza izan ziren.

PREFERENTE

Puntu bat bolada txarra eteteko

X.U. > BERGARA

Aloña Mendik 2-2 egin zuen zapatuan Euskaldunaren zelaian, eta epaileak eragin zuzena izan zuen emaitza horretan, Aloñaren kontrarioak egindako bi golak eztabaidatzeko modukoak izan ziren-eta.

Lehenengoan, zelai erditik areara egindako jaurtiketa batean marrazainak banderatxo altxa zuen, baina epaileak kasurik ez. Protesta egitera zelai erdiraino joanda, Zubiak txartel gorria ikusi zuen. Aloñak, baina, 1-1ekoa egin zuen lehen zatia amaitu aurretek -Axier Ugarte-. Bigarren zatian ere joko eskasa, baloi luzeak baino ez. Epaileak ez zuen ikusi area txikian Oñatiako aitezainari egindako falta (2-1). Eta, falta jaurtiketa on batekin erantzun zuen Aloñak (2-2).

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	39	20
2. Trintxerpe	37	20
3. Berio	37	20
4. Ordizia	36	20
5. Mondra	32	20
6. Aretxabaleta	31	20
7. Aurrera de Ondarroa	30	20
8. Hernani	29	20
9. Euskalduna	28	20
10. Hondarribia	26	20
11. Aloña Mendi	24	20
12. Idiazabal	24	20
13. Anaitasuna	23	20
14. EHU Vasconia	23	20
15. Zestoa	20	20
16. Zumaiako	19	20
17. Touring	18	20
18. Eibartarrak	17	20

Emaitzak

Hondarribia-Zumaiako	3-2
Berio-Real Union	1-0
Ordizia-EHU Vasconia	1-0
Euskalduna-Aloña Mendi	2-2
Aretxabaleta-Zestoa	3-2
Aurrera de Ondarroa-Idiazabal	0-1
Touring-Anaitasuna	1-1
Mondra-Eibartarrak	2-1
Trintxerpe-Hernani	1-2

Hurrengoak

Real Union-Hondarribia	
EHU Vasconia-Berio	
Aloña Mendi-Ordizia	
Zestoa-Euskalduna	
Idiazabal-Aretxabaleta	
Anaitasuna-Aurrera de Ondarroa	
Eibartarrak-Touring	
Hernani-Mondra	
Zumaiako-Trintxerpe	

BESTELAKOAK

LEHENENGOKO ERREGIONALA	
Bergara-Roteta	0-0
Antzuola-Intxurre	0-0

BIGARREN ERREGIONALA

Aretxabaleta-Mondra	1-2
Elgeta-BTLS	1-1

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Ordizia-Aretxabaleta	1-1
Sporting de Herrera-Bergara	0-3

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Aloña Mendi-Tolosa	1-4
Urola-Mondra	0-2

LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK,

IGOERA FASEA

San Marcial-Aretx.Arizmendi B	5-4
-------------------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Bergara-Ordizia	1-2
Antiguoko-Aloña Mendi	1-2

LEHENENGOKO MAILAKO KADETEAK,

IGOERA FASEA

Arrasate-Anaitasuna	2-1
Aretxabaleta B-Eibartarrak	0-1

OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA

Bergara-Lengokoak	2-2
Aretx.Arizmendi-Antiguoko	0-5

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Intxaundi-BTLS	0-2
----------------	-----

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Arizmendi-Mondra	0-2
Bergara-Mutriku	0-1
Zestoa-Arizmendi	4-0



Esaiguzu kedarrik gabeko autoa
nahi duzula, eta guk
lagundu egingo dizugu erosten.



Kutxan ingurumenarekiko konpromiso sendoa dugu. Horregatik, orain auto berri ekologikoago bat erosteko unean laguntza eskaintzen dizuten lehenen artean egon nahi dugu.

Gure Credikutxa Automobilaren interes-tasan hobaria izango duzu, kontsumo baxuko auto bat (hau da, km-ko gehienez 120 gramo CO₂ isurtzen duena) erostera bideratuta baldin badago.

Horrela **onura bikoitza** lortuko duzu: alde batetik finantzaketa abantailatsuagoa zure kredituan, eta, bestetik, zure auto berriaren matrikulazio-zerga aurreztea (Estatuko Gobernuak horrela erabaki baitu).

kutxaren **Ekofinantzaketa Ierro** berria abian jarri, eta utzi atzean ke kaltegarri guztiak.

creativare

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

FUTBOLA > LEHEN ERREGIONALA

Lidertza eskuratzeko borrokan, Bergarak huts egin zuen etxean

BERGARA

0-0

ROTETA

Bergara > Sesma, Josu (Aitor, 80. min.), Nafarrete, Oregi, Garitano, Loiola, Unai, Eloy, Lizarbe (Martinez, 60. m.), Otero eta Balza (Macho, 75. m.)

Roteta > Iñigo, Oinatz, Urtzi, Arkaitz, Joel (Cris, 75 m.), Jonatan, Ekaitz (Unai, 70 m.), Imanol, Unai (Mikel, 77 m.), Rober (Borja, 88 m.) eta Ibon.

Bestelakoak > Eguraldi ona. 300 bat lagun Agorrosinen.



ERASOAN Lehen zatiko irudian, Otero bergararraren barneraldi bat.

JOSETXO ARANTZABAL

EDU MENDIBIL > BERGARA

Partiduko azken txanpan bi gol aukera garbi izan zituen Bergarak baina Manu Diazaren mutilik ez ziren fin ibili ate aurrean zapatuau. Nafarreteren burukada eta Eloyren errematea kampora joan ziren eta Agorrosingo zaleek ez zuten golik kantatzerik izan. Husnako berdinketarekin amaitu zen Rotetaren aurkako partidua.

Neurketak ikusmin dezentze piztu zuen etxeko bolada onagatik. Lidertza eskuratzeko borrokan dago Bergara eta zapatuau aukera ederra galdu zuen arerio zuzenetako atzean uzteko. Ez zen jardunaldi gozoa gertatu mahoneroentzat: puntu bakar bat eskuratu zuten eta Urolak eta

Amaikak Bat liderrak irabazi egin zuten. Rotetako alde du gol-averagea Bergararekin, joaneko partiduan 3-2 irabazi zuelako.

AUKERA ONENAK, ETXEKOEK

Bergarak izan zuen garaipena eskuau, aukerak zenbatuta behin behin: lehen zatian Nafarreteren hanketan egon zen garbiena, baina haren erremateak langan jo zuen. Jarraipenean, lehen aipatutakoez gain, Balzaren

urruneko jaurtiketa eder bat nabarmentzekoa da: Rotetako ateizanak kornerrera desbideratu zuen baloia. Loiolak beste bi aukera huts egin zituen jarraian egindako bi jokalditan, 66. minutuan. Eta handik gutxira bisitarien susto galanta eman zuten: bakar bakarrik zegoela, Arkaitzak area txikian errematatu zuen buruz, baina kanpora joan zitzaiion baloia. Hurrengo minutuan, Balzak barneraldi ona egin zuen eskumako hegaletik baina ez zuen asmatu azken pasea ematerakoan.

Azken minutuak nahasiak gertatu ziren: Arkaitzak txartel horia ikusi zuen Sesma atezainari sarrera itsusia egin ondoren eta jarraian Garitano atzelariari gorria atera zion Sanchez epaleak. Eskerrak ez zutela kanpo-koek irabazi, zaleak ordurako nahiko haserre zirelako epailearen lanarekin.

SASKIBALOA > LEHENENGKO MAILA

Azken hiru minutuetara arte estutu zuen Easok

MONDRAGON UNIBERTSitatea

79-67

EASO DONOSTIA

X.U. > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak azken minutuetara arte itxaropena eman zion Easori. Iturripen denboral-diko ezustea emateko gauza zirela sinestarazi zieten, baina azken hiru minutuetan azeleragailua zapaldu eta markagailuan tartea zabalduta irabazi zuen MUk.

Hain zuzen ere, markagailuak bi puntu aldea erakusten zuean Iñigo Biainek baloia lapurtu, kontraeraso azkarrean Gamarri eman, eta azken horrek egin-

dako hirukoak zapuztu zituen donostiarren ilusio denak. Hortik aurrera desagertu egin zen Easo: "Hiruko hori erabakigarria izanda, bai, baina saskiratzeak baino Biainek errekeratutako baloiak izan du meritu handiagoa", onartu zuen partidua amaitutakoan taldeko kapitain Gamarrik. Garaien horrekin Arrasateko taldeak lider jarraitzen du, hamahirugaren garaipena poltskoratuta.

ALARTZIA, ERABAKIGARRIA

Lehenengo laurdenean parean egon ziren indarrak (22-22), eta bigarrenean hartu zuen MUk partiduko errenta handiena (42-32). Zaleek lasai hartu zuten atsedenal-dia, ez zuten aparteko ezustekorik espero. Baina, donostiarak esnata eta markagailuko tarte txiki-

tzeko gauza izan zen Easo: azkena arte ez zuten amore emango. Hala, taldeko joko antolatziale Alartziari epaileak laugarren falta adierazi izana aprobetxatu zuen Easo. Iturriekoak aurreikusi baino gehiago estutzeko: "Jokoa erabat hautsita egon da. Alde horretatik, Alartziarekin taldeko lan handiagoa egiten dugu, eta hura falta denean bakarkako jokaldi gehiago egiten ditugu".

Hala, bakarkako jokaldi horietan inspiratuta dabiltsanean ez dago arriskurik, baina uztaiaren aurrean zuri-moreei punteriak kale egiten badie kontrarioak arnasa hartzen du, eta neurri batean hori gertatu zen azken laurdenean. Aurreratu moduan, baina, Easokoei gozokia erakustearerin batera eman zieten MUkoek kol-



AIREAN Gorka Quintana, jaurtiketa egin aurretiko jauzian.

JOSETXO ARANTZABAL

pea. Izan ere, Iturripen irabazteko Easok tarteka erakutsitakoa baino gehiago behar da.

IRABAZTEN JARRAITU

Partidua irabazita ere, igoera faseria begira zapatuko garaipenak ez du horrenbesteko garrantzirik:

FUTBOLA

Hirugarren berdinketa jarraian Antzuolak

ANTZUOLA

0-0

INTXURRE

E.M. > BERGARA

Zapatuau beste berdinketa bat lortu zuen Antzuolak, Intxurreren aurka. Aurreko jardunaldian, Amaikak Bat liderraren etxeen, hiru gol egiteko gauza izan baziren ere, zapatuau ez zuten gola egiterik izan azken aurreko tokian dagoen Intxurreren aurka.

BAJA UGARI ANTZUOLAK

Baja ugari zituen Antzuolak: bost jokalari zigortuak txartelengatik eta beste lau lesionatuta. Hala ere, Andoni Azkargorta Antzuolako entrenatzalea pozik azaldu zen jokatu zutenek egindako lanarekin. Izan ere, golik egin ez arren, partidu ona egin zuten etxekoek. Alegikoak atzean sartu ziren hasieratik, bost defentsarekin; partidu osoan zehar bitan baino ez zuten errematatu antzuolarren aera.

Etxekoek, ostera, erasora egin zuten lehen minututik. Gol aukera garbiena Aitor Berraondok huts egin zuen, luzapenean. Atezaina lurrean zela, ez zuen asmatu baloia sartzen. Hirugarren berdinketa jarraian Antzuolarentzat.

"Easo seguruenik ez da igoera fasean izango, eta datozen asteotan ditugun kontrarioak ere ez. Hala, talde horiei irabaztea ez da igoera fasean egongo den bat irabaztea bezain garrantzitsua. Dena dela, ezinbesteko da daramagun bolada onari eusteko".

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Garaipena eskuan izan eta azken segundoan galdu Bergarak

Penalti bat huts egin zuen Bergarak 14 segundoren faltan; huts egin eta berdinketa hautsi zuen Basaurik

BERGARA

31-32

BASAURI

Bergara > Kapelastegi, Aitor Aldanondo (9 gol), Gorka Uribe (1), Gorka Ugalde (4), Ruben Sanchez (5), Iñaki Najera (1), Xabier Najera, Hodei Lenisoro (1), Iñaki Manuel (7), Mikel Larrañaga (2), Pozo, Josu (1) eta Zangitu.

Basauri > Igor Martin, Penacho (6), Rodriguez, Aldama (5), Acevedo (2), Del Rio (3), Jon Pico, Mijas (2), Aitor Santander, Otegi (2), Borge (5), Fernandez (2), Cuesta eta Quintano (5).

Bestelakoak > Ohi baino ikusle gutxiago Labegaraietan. Hotza harmailetan.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Josetxo Muniategik urte mordoa darama Bergarako entrenatzale. Bada, zapatuko jaso duen kolperik gogorrena izan dela aitortuzigun. Izan ere, partidua bukatzeko 14 segundoren faltan, eta 31nako

berdinketarekin markagailuan, partidua eskuratzeko penalti bat alde izan zuen Bergarak. Iñaki Manuelek jaurtiketa huts egin eta hurrengo jokaldian gola egin zuen Basaurik, bozina jo baino bi segundo lehenago hain zuzen. Lur jota utzi zien bisitarien golak etxeko-ei. Ez zuten gertatuko sinistrik nahi. Garaipena eskuan zutela, bi puntuak Basaurik eraman zuen azkanean. Gehiegizko oparia bizkaitarentzat, ia partidu osoan zehar markagailuan atzetik ibili ondoren.

BERGAREN ERREAKZIOA

Partiduaren hasieran, emaitza bestelakoa izan zitekeela erakutsi zuen markagailuan. Basauri 1-6 aurreratu zen markagailuan baina berehala eterri zen Bergarakaren erreakzioa. Sendo atzean (nabarmentzekoa berriz Kapelastegi eta Zangitu atezañen lana) eta erasoa an fin, atsedenaldira bi goleko abantailarekin heldu ziren berga-



ERASOAN Ruben Sanchezen jaurtiketa bat zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

rarrak (17-15). Azpimarratzeko Iñaki Manuel eskumako hegaletitik egindako lana: sei gol egin zituen lehen zati horretan. Bigarrenean, aldiz, ez zen horren ondo ibili Manuel eta partidua erabakitzeko unean ez zuen zorterik izan.

Joaneko partiduan Basaurik erraz irabazi zion Bergarari, hamar goleko abantailaz. Zapatuan mendekua etorriko zela ziru-

dien eta 2. zatian ondo estutu zuten Basauri. Aitor Aldanondok haratu zuen erasoko jokaldien erantzukizuna (9 gol). Bera izan zen golegile nagusia. Basauriren partetik Penachok sei gol egin zituen.

Gude eta Carrera Asobal liga-ko epaileek lan ona egin zuten, jokaldiren baten etxeekoak kalte-tu arren. Halere, ezin epaileei porrotaren errua bota. Zorteaz ez zuen aldeko izan bergararrek.

ESKUBALOIA

2008an garaipena lortu gabe Ford Mugarrak

LEA CORAZONISTAS

36-29

FORD MUGARRI

E.M. > BERGARA

Urte berria ez dute ondo hasi Ford Mugarrikoek: oraindik ez dute partidurik irabazi 2008an. Atzo, Gasteizen, galdu egin zuten Beñardo Balerdiren mutilek, 36-29. Partidu osoan zehar ez zioten neurria hartu gasteiztarrei. Etxekoek hiruzpalau goleko abantaila lortu zuten lehen minunuetan eta abantailari eusteko ez zuten inolako eragozpenik izan. 4-2 defentsarekin hasi ziren jokatzen etxeokoak eta ustekabeen harrapatu zituzten bisitariak. Ford Mugarrikoak ez ziren gauza izan erasoan gasteiztarren defentsa eusteko. Horrez gain, pattal ibili ziren Arrasatekoak euren atea defenditzen. Lehen zatian sei goleko aldea lortu zuen Lea Corazonistasek (18-12).

Balerdik defentsa aldatu, bi misto egin eta *pressinga* agindu arren, ez zuen Arrasatek alde murrizterik izan. Azkenean, zazpi goleko abantaila etxeoko alde. Ford Mugarrrik Iturripen jokatuko du egubakoitzean. Ez dute lan erraza izango; hirugarren tokian dagoen Urduliz hartuko dute.

Gripeak ondo astindu zuen igeriketako jardunaldia

Benjamin mailako hirugarren jardunaldia egin zuten Bergaran zapatuan. 85 neska-mutikok hartzuten proban esku, baina igerilari asko etxeen geratu ziren, gripeak jota. Lehiatu zirenek, baina, neurri polita eman zuten. 200 estilotan Nerea Uriarte (Aloña) izan zen lehena, eta aipatzeko lana egin zuten Xabier Jauregik eta Aitor Diazek.

100 metro bular estiloan ere Nerea Uriarte gailendu zen, eta mutiletan Asier Ibabe oñatiarra izan zen azkarrena. 400 krol estiloan Bergarako Monika Alberdi bigarren sailkutu zen. Errelebotan ere ibarrekoek lan txukuna egin zuten, eta azpimarratzeko Arizmendiko nesken lana, lehenengo urtea zela kontutan izanda.



JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA > LAU T'ERDIKO ELITE TXAPELKETA

Aitor Mendizabalek denboraldiko hirugarren txapelketa irabazi du

Antzuolakoak egubakoitzean jokatu zuen Sopelan lau t'erdiko Elite Txapelketako finala (22-14)

X.U. > ANTZUOLA

2007a urte borobilera izan zen Aitor Mendizabalek, eta 2008a ez du okerrago hasi. 19 urte egin berri -urtarrilaren 3an-, Antzuolakoak denboraldiko hirugarren txapelketa poltsikoratu zuen egubakoitzean Sopelan (22-14). Hala, etxeen gordeta izango dituen Elgetako lau terdiko Txapelketako eta DV Sariko txapelekin batera jarriko du egubakoitzean ira-

bazitakoa. Mendizabalek onartu moduan, gustura jardun zuen partiduan: "Aurretik ibili nintzen beti, baina hasieran alde txikiarekin. 14-13koan egindakoan, baina, aurrera egin nuen, partidua amaitu arte".

KOLPE FRESKO

Pilotari kontrario izan zuen Urtasunek baino freskotasun handiagoarekin emanda irabazi zuen Mendizabalek finala, baina datorren hilean izango duen hitzordura begira -Mallabian jokatzen duten Biharko Izarrak Txapelketa-, Antzuolakoak atseden hartu behar du: "Garrantzitsuena eskuetatik ondo egotea da, eta orain justu samar nabil, min egiten didate". Hori jakinda, datozen aste-otan lasai ibiltzeko asmoa du Mendizabalek.

Sergio Maiztegi oñatiarra da, eta eskaladan aditua. 16 urte zituen hasi zen eskalatzen;

orduan, ez zegoen rokodromo- rik eta Araotzera eta ingurue- tako eskoletara joaten zen.

Orain, Zubikoan ibiltzen da bide- akjartzen eta konponketak egi- ten. Gainera, pozik dago, aur-

tengo Euskal ligako jardunaldi bat Oñatin jokatuko delako; apirilean izango da hori.

Sergio Maiztegi > Eskalatzailea

"Txapelketak antolatzeko bezalako rokodromoa jarri dugu Oñatin "

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Zubikoako rokodromoa berritu zutenetik jende gehiago ibiltzen da escalatzen Oñatin. Zaletasuna badagoela argi dago; hala, datorren zapatuan Oñatiko III. txapelketa antolatu dute herriko escalatzaileek. Arratsaldean izango da.

Zubikoa kirodegiko rokodromo berritu duzue.

Oñatiko kirodegian, kantxa berria egin dute; horrekin batera, asmoa, rokodromo handi bat egitea zen. Txapelketak jokatu ahal izateko rokodromoa. Baino, azpiegitura aldetik, arazoak zeuden; kantxak ez zeukan guk gura genuen besteko altuera. Hortaz, lehen zegoen rokodromo zaharra berritzea pentsatu genuen.

Bereziki eskertu gura dut kirodegiko teknikaria den Gerardo Eskartzaren laguntza.

Zer jarri duzue?

Lehen zegoena berritu da; rokodromo bat zegoen sokarekin escalatzeko eta, bestalde, panel bat entrenamendua egiteko. Orain egin duguna da, bi horiek berritu. Panela handitu egin dugu eta kobazulo itxura hartu du orain. Azken finean, bikoitzu egin dugu lehen zegoena.

Kanpoko empresa bat ibili da lanak egiten.

Bai, diru kantitate polita genuenez, subastara atera genuen lana; bi empresa aurkeztu ziren eta Asturiaseko Top 30ek irabazi zuen. 54.000 euroko aurrekontua geneukan.


Baina, zu ere ibili zara rokodromo berrian lanean.

Bai, bi panel ezberdin jarri ditugu; hala, nik boulderreko paneleko diseinua eta kontrola eramango nuela erabaki genuen. Bestean, rokodromoko panelean, Carlos Vieira alpinista oñatiarra ibili da. Azkenean, emaitza ona izan da.

Ze beharrei erantzuteko egin duzue rokodromo berria?

Gura genuen, denok erabiltzeko moduko rokodromo jartzea; alde batetik entrenamendua egiten dituztenentzat eta, baita, bide zailagoak jartzea ere. Bestalde, ikastaroak eman eta hastapenak bultzatzeko moduko lekua ere gura genuen.

Oñatin bertan, Araotzko eskola daukagu; kanpoko jende mordoa etortzen da bertara baina, Oñatikoak ez dira asko ibil-



Sergio Maiztegi, zapatuan Oñatin ateratako argazkia.

JOSETXO ARANZABAL

tzen. Horregatik, rokodromo berriarekin jendea animatu gura izan dugu, entrenamendua egiteko moduko lekua.

Zenbat escalatzaile ibiltzen da Zubikoan?

Zaila da esatea zenbat erabiltsaile dagoen. Kanpoko eskaldan, Araotzen esaterako, jende gutxi ibiltzen da.

Zubikoako panel zaharrean, ohiko entrenamendua egiten hamar lagun inguru ibiltzen ziren; baina, rokodromo berria dugunez, erabiltsaile kopurua nabarmen igo da. Orain, 25 pertsona inguru ibiltzen da Zubikoan.

Arrasaten, Joxean Mulas ibiltzen da irakasle lanetan. Oñatin badago irakasle lanak egin duenik?

Hori galdera ona da! Aloñaren asmoa, denborarekin, Oñatin escalada eskola bat sortzea da. Baina, horrek dedikazio handia eskatzen du eta oraingoz, ez dago hori egingo duen inor. Joxean

ZUBIKOA

"Aurrekontu ona genuenez, rokodromo txukuna egitea lortu dugu "

ARAOTZ

"Mundu guztian ezagunak diren bideak daude Araotzen; baina, herrian ez da ezaguna"

TXAPELKETA

"Zubikoan entrenatzen ibiltzen garenok antolatu dugu txapelketa; aurtengoa hirugarrena izango da"

Mulasek izugarritzko lana egiten du Arrasaten. Gainera, rokodromotan, bideak montatzen ere ibiltzen da. Bailara mailan gehien dakiena izango da, duda barik.

Entrenamendua ere egiten ditu; berak dauka Arrasateko teknifikazio eskolako ardura. Momentu honetan, guk ez dauka gura ardura hori hartuko duen inor.

Hasi berri batek, badauka eskola batean ikasteko aukera?

Ez, momentuz ez dago ezer. Ikastaroak antolatzen ditugu; bat negu partean eta beste bat uda partean. Uztailean, bi edo hiru txandako ikastaroak izaten dira eta hasi berrientzat aukera ona izaten da ikastaro horietan izeña ematea.

Hala ere, lehen esan bezala, gure asmoa bada ikastaroak antolatzea. Rokodromo berriarekin, jende gehiago animatu da escalatzailea eta lehen baino escalatziale gehiago ibiltzen da orain Zubikoan.

Neurri bereziak hartu behar dira escalada egiterakoan?

Kiro arriskutsuaren mitoa kendu gura dugu. Guk beti esan izan dugu beste kiro batzuk ere arriskutsuak direla. Hartu behar diren neurriak ondo haratu ezkerro, ez dago istripurik izateko arriskua. Baino, istripua gertatu ezkerro, larria izan daiteke.

Araotzko eskola ere hor dago.

Bai, gainera oso eskola ona da. Mundu guztiko escalatzaileen artean oso ondo baloratuta dago. Herri mailan, berriz, ez dakigu zer daukagun.

Datorren astean, Oñatiko III. txapelketa jokatuko da.

Bai, aurtengoa hirugarrena izango da. Lagun artean ondo pasatzeko antolatu genuen lehenengoa; eta, arrakasata ikusita, errepikatu egin genuen. Gehienak Oñatin entrenatzen ibiltzen direnak izango dira, baina ateak denei zabaldzu dizkiegu.

OÑATI

Nagikeria ohean utzi, eta zapatu goizean kirola egitera

LAU KIROL Oñatiko neska-mutikoak, saskibaloian, eskubaloian, areto futbolean eta 7ko futbolean aritu ziren.

GURASOAK ANIMATZEN Guraso ugari ibili ziren bai kirodegian baita Ibarran ere seme-alabak animatzen.

EMAITZA, GUTXIEKOA Partidak galdu arren, haur gehienak gustura zeuden lagunartean jokatzeagatik.

TXOMIN MADINA > OÑATI

Zapatu goiza izan arren, gogoz aritu ziren Oñatiko neska mutikoak saskibaloian, areto futbolean, 7ko futbolean eta eskubaloian jokatzen.

3. mailako gaztetxoak, eskubaloian ibili ziren kirodegiko kan-txa urdinean eta 4. mailakoak ere leku berean aritu ziren, baina euren kasuan areto futbola izan zen egokitu zitzaien kirola.

5. mailakoak kanpoan jokatu zuten 7ko futbolera Ibarrako zelaian, eta nagusienek, hau da, 6. mailakoek saskibaloairekin izan zuten hitzordua kirodegiko kan-txa berdean. Josean Larreari ego-kitu zaio aste honetan eskola kiro-la antolatzea.

GURASOEN INPLIKAZIOA

Haurrak izan baziren kiroletan lehiatu zirenak, gurasoak ere ez ziren urrun ibili, bai entrenatzai-le lanetan, baita harmailetan seme-alabei animoak ematen ere.

Eskola kiroleko taldeak anto-latzeko orduan, 3. eta 4. mailako neska-mutikoen kasuan ez dute ikastetxea kontutan hartzen, eta hala, talde berdinean, ikastetxe ezberdinetako taldekideak biltzen dira. Guraso batek adierazi zue-nez, hori oso ideia ona da, horre-la normalean harremanik izaten ez duten gaztetxoek elkar ezagu-tzeko aukera izaten baitute. Dei-garria da gainera talde hauei ize-na jartzeko orduan erabiltzen den sistema: mutilen kasuan, taldeek Oñatiko mendien izena hartzen dute; neskekin aldiz, animalien ize-nak erabiltzen dituzte.



T.M.

Katabera. Goian, Bittor, Mikel Aramendia eta Mikel Aberasturi. Makurtuta, Xabi, Gorka eta Ekaitz.



T.M.

Duru. Goian, Jon, Beñat eta Iñigo. Makurtuta, Unai, Ibon eta Xanti. Eurek osatzen dute Duru taldea.



T.M.

Sugeak. Zutik, Saioa, Guadalupe eta Eider. Behean makurtuta, Ania, Itziar eta Nagore.



T.M.

Aratz. Zutik, Imanol, Ander, Urko eta Beñat. Behean, Eric, Julen, Ander, eta Mikel.



Gorka, Mikel eta Ekaitz
Katabera



Jon, Beñat, Iñigo, Xanti eta Ibon
Duru



Ania eta Eider
Sugeak

Gustura zeuden Katabera taldekoak, areto futboleko partidua irabazi egin baitzuten. Saskibaloian eta eskubaloian ere jokatu ohi dute, baina esan zigutenez areto futbola dute gustuko, golak sartzeko aukera ematen baitie. Aurkariekin ondo eramatzen direla esan zigutenez, ez horrenbeste epaileekin, euren hitzetan "sarri kalte egiten baitute".

Duru taldeak 5 eta 12 galdu zuen zapatuan. Dena den, ez zeuden atsekabetuta, euren iritziz "jolastea baita helburua". Taldeko kirolez gain, atletismoa ere egiten dute eskola kiroletan, baina gehienek nahiago dute lagunartean jokatzea. Multikirolean dabiltsanek entrenatu egiten duten arren, aitorrtu zigutenez normalean galdu egiten dutela. Emaitzak onak ala txarrak izan, gogoz egoten dira zapatu goiza noiz etorriko berriz ere lagunartean partidak jokatzeko.

Sugeak taldeak eskubaloian jokatu zuen Katuak taldearen kontra, eta azkenean galdu egin zuen. Aniak eta Eiderrek esan zigutenez "besteek baloi guztiak kentzen zizkigutenez eta". Futbola da gehien gustatzen zaien kirola, eta badute eskola kiroaren inguruko kexa bat ere: "EZ zaizkigu bederatzia eta laurdenetan hasten diren partidak gustatzen... Goizegi da!"



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra**

943 25 05 05



ASTELEHENeko
Goienkaria

ASTELEHENeko
Goienkaria



Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria



> MUSIKA

Ehun lagun inguru gerturatu ziren Goseren kontzertura **> 24**

> MUSIKA

Jende asko Soraluzen musika eskolen kontzertuan **> 24**

> KANTARI

Oraingo astean GOITBn emitituko diren 9 taldeetako kantariak **> 27**

> ELKARRIZKETA

Oihana Azkue Gazteko esataria elkarrizketatua dugu **> 29**

MUSIKA > DVD AURKEZPENA

Mahaster Riverrek udan Edinburgon biziakoak, DVDan

Udan, astebete pasatxo eman zuten bergararrek Eskoziako hiriburuan

Hainbat kontzertu eskaini zituzten kalean, tabernetan eta baita katedralean ere

TXOMIN MADINA > BERGARA
Mahaster Riverreko Fernando Laskurain taldeidea urtebetetzea Edinburgon bizi izan zela aprobetaztuz, iazko abuztuan maletak egin, instrumentuak soinean hartu eta Eskozia aldera egin zuen hirukote berargarra.

Astebete pasatxo eman zuten bertan, eta Edinburgon egiten den Fringe jaialdian parte hartzeko aukera izan zuten. Jaialdi honetan musika zein antzerki ikuskizunak kalean egiten dituzte, eta halaxe egin zuten Mahaster Riverrekoek ere, lehen kontzertuak kalean emanez.

Han egindako kontaktuen bidez, bertako hainbat tabernean jotzeko aukera izan zuten, Sandy Bells edota Royal Oak ize-nekotan adibidez. Kontzertu dei-garriena halere, St. Gilles katedralean eman zutena izan zen.

"ESPERIENTZIA OSO ONA"
Mahaster Riverrekoen bidaia-ren inguruan berba eginda, "oso esperientzia ona" izan dela esan digute.

Hainbat biziaren izan dituzte. Aipatu digute adibidez, taberna baten sartu eta Ruper Ordorikaren musika entzun zutela. Gero jakin zuten taberna horretan Alan izeneko eskoziar batek jotzen zuela, eta honek hainbat urte eman zituela Euskal Herrian. Alanen lagunak egin ziren eta horri esker, berak jotzen zuen tabernan talde gonbidatu bezala aritzeko aukera izan zuten.

Bidaian zehar momentu onez gain, txarrak ere izan zituztelako aitortu digute berargarrek. Hasieran adibidez, kalean jotzen hasi



MAHASTER RIVER DVDa aurkezu eta konzertu akustikoa egin zuten Mikel Azkargortak, Unai Azkaratek eta Fernando Laskurainek.

JOSETXO ARANZABAL

zirenean, bidali egin zituzten. Dena den, "bidaia aberasgarria" izan dela gaineratu dute, eta taldekieen arteko harremanak sendotzeko balio izan duela.

BIDAIKO IRUDIEKIN, DVDA

Bidaiako esperientziak jasoaz, DVD bat egitea erabaki zuten Mahaster Riverrekoek, eta egubakoitzean aurkeztu zuten Bergarako gaztetxean.

Hasierako asmoa irudiak euren dako oroigarri gisa gordetzea bazen ere, adierazi digute gero pentsatu zutela DVD formatura pasa eta lagunartean zein zaleen aurrean erakustea. Aurkezpen gehiago egiteko asmoa dutela gaineratu dute.

Ostiraleko aurkezpenean, DVDa erakutsi eta gero kontzertu akustikoa eman zuten Mahaster Riverrek eta Mikel Garatek.

Mikel Calvo > DVDaaren egilea

"Gustura nago DVDa izan duen harrerarekin"

T.M. > BERGARA

23 urte dituen gazte ber-gararrak izan du DVDA egiteko ardura. Zailena, grabatuta zegoen guztia aukeratu eta antolatzea izan dela aitortu du.

Nolatan sortu zen DVD hau egiteko aukera??

Mahaster Riverrekoek bazezten ni ikus-entzunezkoen munduan ibiltzen nai-zela, eta galdetuz idatzen ea euren bidaian jasotakoekin muntaia bat egiteko prest e gongo nintzakeen. Nik baiezkoa eman nien.

Nolakoa izan da DVDa egiteko prozesua?

Bidaia grabatutako sei DVD eman zizkidaten, bakotza 30 minutukoa. Nire lana izan da denak ikusi, taldekiekin hitz egin eta ondoren materiala antolatzea: bidaia, kontzertuak eta bestelako irudiak.

Zein izan da zatirik zaile-na?

Materiala aukeratzea. Dena nahastuta zegoen, eta plano interesgarrienak hautatzen saiatu naiz. Gainera jendea ez aspertzeko, aha-

lik eta arinena egitea izan da nire nahia.

Aurretik ere hainbat ikus-entzunezko egin dituzu. DVDA hau egitea berezia izan al da?

Oso ezberdina izan da. Aurreko lanak fikziozkoak ziren, edota esperimentala. Oraingo honek baina, dokumental tankera du eta lehen aldia izan da antzerako zerbaitegitegindudana.

Emaitzarekin gustura?

Bai, nahiko gustura geratu naiz, batetik lanak



GOIENKARIA

fruitua eman duela uste dudalako, eta bestetik taldekieen eta ikusleenerantzuna oso ona izan delako. Pozik nago.

KONTZERTUA > ELEKTROTRIKI PUNKA

Gosek eskainitako menuak asebeteta utzi zituen 360 Aretora hurbildu zirenak

Bertaratu zirenek kantu berriez eta zaharrez gozatzeko parada izan zuten

Hainbat gonbidatu igo ziren taula gainera, Titino eta Maixa eta bi pandero jole tartean

IAGO CASCON > ARRASATE
Ehun lagun inguru gerturatu ziren bariku gabean 360 Aretoran prestatutako otordura. Menua ez zen edonolakoa: Arrasateko Gose hirukotea beraien bigarren lana aurkezten. Goseren osagaiak zeintzuk diren ikusteko parada izan zuten hurbildu ziren; trikiaren melodía, rock ukitu bat, guztia elektronika oinarri sendo batekin nahastua.

ABESTI ZAHARRAK ETA BERRIAK
Disko zahar eta berriko kantuak tartekatuz zuzeneko sendoa dute la erakutsi zuten Goseko partaideek, eta hauen aurreko ibilbidea ezagutzen dutenek (Bad F-Line, Kañeria 13, Naiara eta Ines,



GOSE ARRASATEN Egubakotzean 100 lagun inguru hurbildu ziren 360 Aretora

JOSETXO ARANZBAL

Ekon...), musika estilo ezberdin horiek zeinen ondo uztartzen dituzten sumatzeko parada izan zuten. Ez baita erraza horrelako *esperimentu* musikala erakutsi zuten estilo eta koherentziarekin

taula gainera igotzea. Ekaineko Monterronoko kontzertuan mai- la altu utzi bazuten ere, ostiralean ez zuten kalerik egin. Disko berriko abestien iloarekin zuze- nekoak agresibitate puntu bat

galdu duela iruditu zitzagun, baina konplexutasunean eta kolo- retan irabazi du, bai musikalki baita bisualki ere, prestatu dituzten zuzeneko proiekzio berriek horretan laguntzen baitute. Oso-

ron gitarra jolearen fitxaketak zuzenekoari kutsu rockerago bat eman diola agerikoa da, tau- la gaineko animalia izaki transmititzeko gaitasuna duen musikaria baita.

Abestien artean Elkorobarrutiari tarte bat eginez, 11 abesti aurkeztu zituzten eta hauetariko azkenengoan Maixa eta beste bi pandero jolek lagundu zioten agertokian Inesi.

Lagunez eta ezagunez inguru- tu ziren, eta etxean jotzen zutela kontutan hartuta, gustura ibili zen Gose taula gainean, egiten duena atsegina duen taldea dela erakutsiz, eta hori entzuleriari helarazten jakinaz.

TITINOREN EKARPENA

Aipatzeko da era berean Titino Arrasateko soinugile elektro- nikoak kontzertua hasi aurrelik egindako ekarpena. Goseren bi diskoetan parte hartu duen musikari honek bere abestia Gose- ren abestiekin tartekatu zituen. Azkenaldi honetan taula gaine- ra igotzen hasi den Titinok bere konposatzale alderdiari zuzene- koa gaineratu dio. Egubakotze- an ikusitakoak ikusi eta gero, aurrerantzean kontutan eduki- tzeko moduko zuzenekoa da gainera.

KONTZERTUA > DEBAGOIENEKO MUSIKA ESKOLAK

Jende asko Soraluzen musika eskolen kontzertuan

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako musika eskolek kontzertua eman zuten barikuan Soraluzekoarekin batera

TXOMIN MADINA > BERGARA
Soraluzeko kirodegiko frontoia txiki geratu zen egubakotzean Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soraluze- ko musika eskolek eskaini zuten kontzertu berezia ikusteko.

Bosgarren urtea izan da aur- ten sei musika eskolek kontzer- tua batera eskaintzen dutena, eta 101 musikari bildu ziren denera.

Eskola bakoitzak bakarka 10 minutuko emanaldia egin zuen. Hala, Aretxabaletakoek, musi- kaz gain dantza erakustaldia egin zuten: 25 dantzari igo ziren taula gainera trikiti, biolin, txirula eta soinu doinuez lagunduta. Bergarako musika

eskolak txirula hirukotea aur- keztu zuen, eta Oñatikoak, txirula laukotea.

Soraluzeko ordezkari eta hain- zezko talde instrumentalak osatu zuen, eta mozarrotuta egin zuten euren emanaldia. Eskoria- tatzatik akordeoi joleak eta bateria bat aritu ziren, eta azkenik, Arrasate Musikanen ikuskizunak bi zati izan zituen: lehenengo, Down sindromea duten hiru gaztetxok teklatua eta gitarra jo zuten eta gero, haizezko taldearen txanda izan zen.

MUSIKA BANDA BATERATUA
Aurten lehenengo aldiz kontzertuari amaiera emateko sei musika eskoletako 35 kiderekin banda bateratua eratu eta bi pieza eskaini zituzten. Hauxe izan zen kontzertura joan ziren ikusleek gehien txalotu zuten saioa.

Soraluzeko Musika Eskolak antolatu du aurten kontzertua eta gustura zeuden emaitzarekin. Ekimen hauetan musika eskolen arteko harremanak sendo- tzeko balio dutela gaineratu zuten.



ARATUSTE GIROA Soraluzeko musika eskolakoek mozarrotuta jo zuten.

JOSETXO ARANZBAL


Kayak Taberna

INAUGURAZIOA

Urtarrilaren 31n arratsaldeko 7etatik 9ak arte
Guztiok gonbidatuta zaudete!

Matxiategi 3, behea
Bergara

Tel.: 943 76 70 11



ABY KEM

DANBAKA)))))) LEHIAKETAKO II. EDIZIOKO IRABAZLEA

DISKO BERRIA ZURE ESKU



CDA: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

Eskaera egiteko deitu: 943 25 05 05 telefonora.
Ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: idazkaritza@goiena.com helbidera.

Nahi baduzu, 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.



Kantari

Dèbagoienean

Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Urtarrilaren 31n
ORDUA > 17:00etan
TALDEA > Ainhoa Vilches, Jati Nuñez, Sara Alonso eta Teresa Arriolabengoa
HERRIA > Aramaio
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > Nere herri



NOIZ > Urtarrilaren 31n
ORDUA > 17:00etan
TALDEA > Ainhoa Vizcaino, Ane Merino, Jone Caballero eta Lierni Axpe
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > Sarri sarri



NOIZ > Urtarrilaren 31n
ORDUA > 17:00etan
TALDEA > Ikerne Garcia, Irati Lopez, Maitane Mayor eta Nerea Dorronsoro
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > Izar iheskorra



NOIZ > Urtarrilaren 31n
ORDUA > 17:00etan
TALDEA > Ainhoa Ojanguren, Nerea Uriarte eta Garazi Aspe
HERRIA > Aramaio
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > Zergatik ez



NOIZ > Urtarrilaren 29an
ORDUA > 17:30ean
TALDEA > Nerea Zurutuza, Maider Arregi, Olatz Kortabarria eta Sara Gomez
HERRIA > Oñati
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > Amets bat



NOIZ > Urtarrilaren 29an
ORDUA > 17:30ean
TALDEA > Maria Bodes, Marina Elorza, Mireia Elvira eta Oihana Urzelai
HERRIA > Oñati
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > Iñaki



NOIZ > Urtarrilaren 29an
ORDUA > 17:30ean
TALDEA > Ainhoa Mantxola, Jone Iturrospe eta Uxue Agirre
HERRIA > Oñati
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > Iñaki



NOIZ > Urtarrilaren 29an
ORDUA > 17:30ean
TALDEA > Arianna Burgos, Itziar Elorza eta Nahia Abaunza
HERRIA > Oñati
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > Narama



NOIZ > Urtarrilaren 29an
ORDUA > 17:30ean
TALDEA > Ainhoa Goitia, Deiane Errazti eta Maider Barrena
HERRIA > Oñati
URTEAK > 10 urte
ABESTIA > Galdurikan nago

ASTEBURUA...

Peio Garitanorekin

"Aste buruan Gorlara joaten naiz, eta sukaldari lanak emazteak egiten ditu"

Asteko egunak kirola egiten pasa ondoren, aste bukaeratan, erlojuari begira egon barik lasaiago egoten da Peio Garitano

Lokatza txirrindulari taldean 30 urte bete ditu, eta jarraitzeko asmoa du

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Urteko aste bukaerak bitan bantzen ditu Peio Garitano bergararrak, "martxotik urria bukaera arte txirrindularitzarekin lotzen ditut aste buruan". Ziklis-moko probarik ez dagoenean mendira buelta egiteko ohitura du, "normalean Gorla aldera eginen dut, baina beste batzutan Oñati inguruko mendietara joaren naiz".

Bizikletan ibiltzea gustatzen zaio "baina, zoritzarrez bide gorri gutxi dago gure ibarrean. Mekolalde inguruko bidea oso gaizki dago. Nik uste diru gutxirekin bide gorri dezente batzuk egin daitzkeela", azaldu zigun.

"AITONAREN PAPERIA"
Edozelan ere, kirola egiteko asteko egun guztiak aprobetxatzen ditu. "Goizean luzatzeariketak egiten ditut igerilekuaren; astean bi egunetan yoga egiten dut; eta duela gutxi hasi naiz fit-bike eta chi-kung egiten", azaldu digu, "gogoa izanez gero, beti dago zer egin".

Kirola egiteaz gain, "aitonaren paperia" ere egiten du. "Eguna, 12:30ean, ikastolara joaten naiz Unax eta Malen biloben bila. Ikastolatik bazkaltzera eroaten ditut".

Peiok egiten du bazkaria etxe an asteko egunetan. "Emazteak denda bat du, hortaz, eguneroko bazkaria nik egiten dut; eta ondo moldatzen naiz". Bain, aste bukaeran sukaldeko amantala emaztearen esku uzten du. "Ni baino sukaldari hobea da, zalan-tza barik".

Aste bukaeratan "lasaiago" egoteko aprobetxatzen du, "ordulariari begira egon barik".

Era berean, lau seme-alabekin eta emaztearekin elkartzeko aukera izaten du domeketan. "Aste egunetan alaba etortzen da bazkaltzera egunero; eta gero aste bukaeratan gainontzeako etortzen dira, biloba eta guzu. Ondo ibiltzen gara guztiok elkarrekin", diosku.

LOKATZAN, 30 URTE
Martxoan hasiko dira Lokatza taldeko txirrindulariak errepi-deetan, eta haiei laguntzen egongo da Peio Garitano. "30 urte bete dira Lokatza hasi nintzela. Gure elkartea, urtero zortzi lasterketa antolatzen ditu, eta lan asko egin behar da dena ondo atera dadin". Era berean, inguruko herrietako beste elkartea batzuek antolatzen dituzten lasterketetan laguntzaile lanak egiten ditu. Gainera, maila handiagoko probetan antolakuntzaren autoetan ibili da, "Euskal Herriko Itzuliak duen azpiegitura izugarria da". Frantziako Tourreko etapa bukaerak era ikusi eta bizi izan ditu, "halako batean ezagutu nuen Marco Pantani". Bicicleta Eibarresa hiru aldiz irabazi zuen Jaques Anquetil ere ezagutu zuen.

Edozelan ere, txirrindularitza, fit-bike, yoga, sukaldaritzaren lanak, bilobak eta chi-kungaz gain, musikarako tartea du Peio Garitanok. "San Joxepe abesbatzan eta Alai taldean kantuan ibili naiz; gainera, asko gustatzen zait dantza egitea", aitorru zigun bukaeran.

Hamabi urterekin erosи zuen lehenengo bizikleta eta 1.700 pezeta ordaindu zituen

Ola auzotik Bergarara etortzeko lehenengo bizikleta hamabi urterekin erosи zuen, "bizikletarekin joaten nintzen toki guztieta, erosketak egitera, futbola ikustera, erromerietara neskekin dantza egitera...".

Txirrindu zale amorratua izan arren, ez da txirrindularia izan "bizikleta gainean ez dudalako gaitasunik izan". Gazte garaian Federico Martin Bahamontes mirestu zuen, "izugarria zen, egundoko txirrindularia". Bain, haren kontura eztabaida asko izan zituen lagunekin, "haien Jesus Loroñoren aldekoak ziren eta bien arteko lehia handia zen orduan".

Kilometro asko egin ditu ziklismoaren kontura, eta horrek txirrindulari asko ezagutzeo aukera eman dio, "Indurain, Lejarreta eta Olano ezin ditut ahaztu. Bakoitzak bere garaian maila oso ona erakutsi zuten". Bestalde, etorkizunari begira Euskaltelek ziklista onak dituela esan digu, eta horien artean Samuel Sanchez nabarmenzen du.



Peio Garitano atzo Gorlan, ibilbideari ekin aurretek.

JOSETXO ARANZABAL

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Kirola.** Gipuzkoako Foru Aldunia. Kiroletako eta Kirol Ekintzako Departamentua. Gipuzkoako kirol federazioe eta kirol gaiei dirulaguntzak emateko 2008ko deialdia. Epea: otsailaren 3a edo urriaren 31a.

> **Graduondo prestakuntza.** Caja Madrid Fundazioa. Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan eta Europako Graduondoko Prestakuntza egiteko Caja Madrid Bekak 2008-2009. Epea: urtarrilaren 31.

EKINTZAK

> **Ken Zazpi.** Kursaal Fundazioa. Ken Zazpik kontzertua eskainiko du Donostia Kursaalean otsailaren 9an, 20:00etatik aurrera.

> **Marlango.** Donostia kultura. Marlangoren kontzertua Victoria Eugenian, urtarrilaren 29a.

IKASTAROAK

> **Toki-garapeneko agente eta eraile ikastaroa.** Larrialdiak S.L. eta Lanbide. Toki-garapeneko agente eta eraile ikastaroa Errenterian. 525 orduko ikastaroa eta praktikak entitateetan. Epea: plazak bete arte.

> **Aisialdiko zuzendari.** Hezkide Eskola. Haur eta Gazteen aisialdiko zuzendaria izateko ikastaroa. Epea: otsailaren 1a.

LEHIAKETAK

> **Aisialdiko Begiralea.** Txatxilipundi Elkartea. Ludotekarako begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia.. Epea: otsailaren 1a.

> **Irakasleak.** Ilazki Euskaltegia. Ilazki euskaltegiak irakasleak behar ditu. Epea: Otsailaren 11a.

> **Heitztaileak.** Haurreskolak Partzuergo Publikoa. Haurreskolak partzuergo publikoan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenden irekialdia. Epea: 2008ko abenduaren 31a.

> **Inkestatzalea.** EAEko Ikerketa Bulegoa. EAEko hiriburuetan eta beste hainbat herrian inkestak egiteko jendea behar da. Epea: otsailaren 15a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@onati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Baserria salgai 5 hektareako lursailarekin (laborantza-lurra eta pinudiak). Solairu bakoitzeko 250 m² (bi solairu). Ur eta elektrizitatearekin. Irimoi auzoan. Paisaia zoragarria eta errepidea ona. 240.405 euro (prezia asto daitze), 943 76 65 03 edo 943 76 62 98.

Aretxabaleta. Bi solairuko etxebizitza salgai. 648 79 46 77.

Arrasate. 45 metro koadroko etxebizitza salgai. Agerre kalean, bi logela, sala, sukaldea eta komuna, berritzeko. Dena kantonaria begira. Trasteleku dauka. Deitu arratsaldeko seietatik bederatzieta. 645 70 08 27 edo 655 72 92 88.

Arrasate. Duplexa salgai Otalora kalean. Bi logela, bi komun, sukaldea, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Igogailua eta gas naturala. 696 79 43 89.

Arrasate. Erdialdean 48 m²ko apartamentua salgai, guztiz berritua. Igogailua eta berogailua. 645 73 04 69.

Arrasate. San Andresen. Arrasate dorrean etxebizitza salgai. Lau logela, egongela, bi komun, sukaldea eta bi balkoi ditu. Guztia kanpoaldera begira. 638 01 47 02.

Arrasate. San Josepe auzoan. 75m². Hiru logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. Trasteleku. Guztiz berritua. 626 00 80 19.

Arrasate. Zerrajera kalean 80 metro koadroko etxe salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

Bergara. Artzamendi kalean. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. Trasteleku. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. 606 53 53 52.

Soraluze. Etxe eguzkitsua eta berritua salgai erdialdean; hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 28 miloi pezeta. 687 08 33 00.

Bergara. Duplex berria salgai (6 urte). Sukalde osatua, bi logela (beste bi egiteko aukera), bi bainugela, egongela-jangela handia, bi balkoi, terraza, gas naturala, igogailua. Garaje itxia aukera. 699 49 14 14.

Bergara. Ibagarai kalean duplexa salgai. Lau logela, hiru bainugela, egongela, sukaldea, terraza bi. Jantzita. 685 75 62 51.

Bergara. San Lorentzo kalean 70 m²-ko etxebizitza salgai. Berri-tuta eta jantzita; bizi izatera sartzeko moduan. 943 53 22 19.

Bergara. Zabaltegin etxe salgai. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. 653 70 84 04.

Bergara. Zubietako kalean 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Fatxada eta teilatua berri-tua ditu. 679 45 57 62.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukaldea-jangela, bainugela eta berogailua ditu. Fatxada berritua. Oso eguzkitsua da. 35.000.000. 645 97 45 64.

Oropesa del Mar. Marina d'oren etxebizitza errentan ematen da. 685 75 62 51.

Nafarroa. Urederra inguruan bi solairuko etxe salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

Ofiati. 70 m²-ko etxebizitza

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENeko GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

Taberna errentan ematen da erdialdean.

608 77 20 27

303. ERRENTAN EMAN

ARETXABAleta

Zerbitzaria behar da kafetegi baterako.

635 73 27 74

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa edo beste lan batzuk egiteko. 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea prest nagusiak edo umekaintzeko. 663 65 78 43.

Debagoiena. Garbiketa lanak egindo nituzke orduka. 637 21 97 04.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu garbitasun lanak egiteko eta umekaintzeko. 609 00 50 94 edo 943 79 41 71.

Debagoiena. Peoi lanak egindo nituzke: garbiketan, makinen mantente-lanetan... Esperientzia daukat. 656 66 49 75.

Debagoiena. Zaharrak zainduko nituzke. Geriatria ikastaroa eginda dauka. Sukaldarri agunzale eta garbitzaile lanak ere egindo nituzke taberna edo etxeetan. 666 21 88 95.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelés eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut. 630 71 35 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi 80 1.9 TD salgai. 1993koa. Hainbat osagarri ditu. Oso egoera onean. Xabier. 652 73 8320.

C-Max autoa salgai. Hagunak (lanetak) eta aire-girogailea ditu. 50.000 km. Diesel. Beltza. 12.500 euro. 639 90 36 18.

Derby Senda R 49 cc-koto motorra salgai. 900 eurotan. 4.000 km bakarrak eta egoera onean. 670 60 02 65.

Gizonezko ezagutuko nuke. 39 urteko gizonezko arraseta-arrar naiz, eta emakumezko ezagutuko nuke edozein harremanetarako; 60 eta 70 urte bitarteko. Baidatzeara dut gustuko, baita dantzaren egin eta zinera joatea ere. Feli. 650 06 00 68.

Honda CB 600 motorra salgai. 1998ko. Berri-berria. 25.000 km. 4.300 euro. 699 37 15 11.

KTM EXC250 2t salgai. 2000ko.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, bi bainu, sukaldea eta egongela. 634 40 37 03.

Bergara. Bolun etxeak alokagai. Sukaldea erabil daiteke. 8 euro eguneko. 670 85 86 68.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean etxebizitza errentan ematen da. Igogailua eta hiru logela.

Conil (Cádiz). Aste Santuako etxalarako apartamentua alokagai. 656 77 94 32.

Mar Menor. Etxebizitza erosoa ematen da errentan, udarako. Guztiz horri: hiru logela, aire giroa, eta horizontatik 150 metroa. Hamabostaldiak edo hilabetea. Udan. 656 71 17 19.

Oropesa del Mar. Marina d'oren etxebizitza errentan ematen da. 685 75 62 51.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, bi bainu, sukaldea eta egongela. 679 98 38 30.

Arrasate. Zigarrola auzoan etxeak behar da aldatzeko, lehenbailaren. 653 71 64 79.

Debagoiena. Etxebizitza hartu-

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje salgai San Lorentzon. 659 63 19 86.

Bergara. Garaje salgai Zubiaurren. 37 m². 606 65 97 82.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje ematen da etxeko bainu eta hiru logela. 677 99 16.

Ofiati. Bidebarrieta garajealoakagai. 695 75 85 26.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai erdialdean. 665 72 25 12.

Bergara. Trastelekuasalgalibar-garai kalean. Neurriak: 5,80x1,80. Deitu 18:00etatik aurrera. 678 43 31 07.

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:


38 euro

2008ko urteko kuota

</

astea GOITBn

Astelehena, 21



> Oñatiko bertso eskolaren gainero erreportajea

21:47

Oñatiko bertso eskolak 25 urte beteko ditu aurten. Hori aitzaki hartuta, erreportajea egindu Julen Iriondok, eskolaren historiaren errepasatzu.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Hitz bitan.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 Gertutik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Hamaillatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Udadzen koloreak.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Hamaillatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 22



> Oñatiko umeen txanda izango da 'Kantari'-n

20:15

Oñatiko Gaztelekuaren grabatutako saioetako bat ikusteko aukera izango duzue martitzenean *Kantari* saioan. 20:15ean izango da.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Hamaillatik.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa .
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Animaliak.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 23



> 'Zu kazetari'-n, Arrasateko Aratusteen bideoa.

21:47

Arrasateko Aratustea bultzatu nahian grabazio bat egin dute gazte batzuek. Grabazioa eskaiko dute eguztenean Goiena Telebistan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Hamaillatik.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kantari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Ikusten.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Ur eta Iur.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera

Eguena, 24



> 'Musikantoi' Maider Arregiren eskutik

22:15

Eguenero bezala, askotariko musikaz betetako saioa prestatu du aste honetarako ere Maider Arregik, *Musikantoi* saioko aurkezleak.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marazki bividunak.
14:15 Zu kazetari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animaliak.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera

Egubakoitza, 25



> Antton Olariaga marrazkigilea 'Ilunpean'-en

22:15

Zakilikut komikiaren aita eta Arrasateko Santamase-tako horma-irudien egile Antton Olariaga elkarritzetatu du Iker Barandiaranek.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Animaliak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animalia.
16:17 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Erreportajea.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera

arrasate irratia

FM 107.7

> Arrasateko udal aurrekontuak
Arrasate Irratian
10:30

Arrasateko skate zaleen beharrak eta talde honek udalari egin dizkion eskaerak aztertuko dituzte gaur Arrasate Irratian albistegiaren tartean. Goizeko hamarrak eta hamaikak bitartean izango da hori.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Ilunpeansaioen, Exkixutaldeko Alex Sardui; musika kontuak, Kantaria saioan; hirugarren adinekoen gaineakoak (dieta kontuak, besteak beste) Zaharrak berrisaioan, etabeste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguztenera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoan
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko: 943 25 05 05
(irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
albistegi laburra.

gertutik



Oihana Azkue
Kazetaria

"Musikarekiko interesa sortu zait Gaztean lanean "

MIREN ARREGI > BERGARA

Oihana Azkue Zarautzen jaiotako kazetari gaztea da. Leioako Unibertsitatean egun zituen kazetaritzaz ikasketak eta egun Gaztean dihardu lanean. Irrati horretarako musika albisteak egiten ditu eta horretaz gain, edukiak ere lantzen ditu. Irratian ez ezik, Euskal Telebistarako ere lan egiten du; pantaila aurrean *Gaztea* deritzeron saioan ikus dezakegu, hain zuzen.

Musika albisteak idatzeko beharrezko da musikaren gainean asko jakitea?

Ez da beharrezko aditu izatea, izan ere, hori horrela balitz ni ez nintzateke hemen egongo. Ni Euskadi Gaztean hasi nintzenean hasi nintzen mundu horretan sartzen. Edozein lanetan bezala interesa sortzea beharrezko da, izan ere, oso esparru konkretua da eta interesa izatea beharrezko da. Pixkanaka gainera, barruan ar moduko bat ere pizten da.

Gazteako goizeko *Di-da* saioan ere entzun izan zaitugu. Nolakoa da ordu horietan horren saio dinamikoa egitea?

Gozamen bat da. Egia esan jaizteko une hori gogorra izaten da baina behin une hori gaindituta, gozamen bat da. Izan ere, esan bezala oso saio dinamikoa da. Gainera, ni normalean ez naiz zuzenekoan aritzen eta zuzenean aritzeak beste martxa bat du. Oso polita da, benetan.

Telebistan eta irratian aritzen zara, zer egiten zaizu konplikatuagoa?

Nire telebistako lanak ez dauka inolako konplikaziorik. Nik bideo-klipen aurkezpenak egiten ditut eta testua idatzeko bakarrik izaten da nire lana. Hala ere, gehiago kostatzen zait telebistan lan egitea, kamara aurrean egotea kostatzen zait, beharbada hasieratik irratian aritu naizelako, baina bai, pixka bat gehiago kostatzen zait, kamara aurrean ipini behar hori.

ETBko bidaien gaineko *Bidaide* saioan ikusi zaitugu. Halako bidaia-rik inoiz egin duzu?

Ez dut inoiz egin, gogoa piztu bazait ere. Egia esan azken hiru urteotan ez dut bidaiatzeko betarik izan, baina ideiak hartzatu ditut eta egin ere egingo dut egunen batetan, denbora hartzen dudanean.

asteko hitzorduak

Jardunaldiak



ARRASATE

> 'La Kermesse heroica' emango dute bihar, historia eta zinema saioetan

Historia zinemaren bidez jardunaldiemanaldia bihar, martitzena, egingo dute Kulturaten, 18:00etan. *La Kermesse heroica* filma emango dute. XVII. mendean, espainiarrek Flandesko herri bat inbaditzen dute.

Antzerkia



ONATI

> 'Cincuentones' antzezlanerako sarrerak salgai ipini dituzte

Cincuentones antzezlan egingo dute Janfra Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregon aktoreek egubakoitzean, eta sarrerak salgai daude Oñatiko kultura etxearen, 10 eurotan, 16:30etik 20:30era bitartean.

Jaia



ESKORIATZA, BERGARA

> Urdelardero eta Hartzaren Eguna ospatuko dituzte bi herrian

Eugen-gizenean, Eskoriatzan, Urdelardero ospatuko dute herriko umeek, kalejira eta jateko gogoekin, eta Bergaran, Hartzaren egunean, aspaldiko ohitura bat berreskuratuko dute San Martin eskolako ikasleek.

kuxkuxeroa



Txomin Madina

Debagoienean
ba al dakigu
geldi egoten?

Galdera horren erantzuna badaukadala uste dut: geldi egoten jakin bada-kigu debagoiendarrok; beste kontu bat da geldi egoterik nahi dugun...

Har dezagun adibide bat. Unai Azkarate, alias **Azkaiter Pelox**. Egubakoitzean **Mahaster Riverreko** talde-kideekin Edinburgora egin-dako bidairen DVDA aurkezten aritu zen. Kontzertuakustikoa eman zuten ondo-ren... eta non aurkituko hurrengo egunean? Oñatin, Ibarra jarritako auto kara-banen kanpamentuan. Kux-

**"Txapel Txin
eguna egin dute
Aretxabaletan
Aratusteak datozela
iragartzeko"**

kuxeatzen zebilen bera eta baita gu ere, aho bete hortz auto karabana baten barruan sar daitekeen dena ikustean.

Neska-mutikoak ohean gogo goxo egon beharrean zapatu goizean eskola kirole-ra, Bergarako udaltzainak Donostiarra bertsotara, ibarreko musika eskolak Sora-luzera... Geldi? Ezta lotan ere!

Aretxabaletan **Txapel Txin** eguna egin zuten zapatuuan: hantxe ibili ziren, haur, gazte zein heldu etxeko txapel koloretsuena, handiena edota xelebreena hartu eta Aratusteetarako motorrak berotzen! Galdezka hasi gara kuxkuxeatzen, eta galdezka bukatuko dugu gaurko saioa, seguruenik aste honetan gehien errepikatuko den galderarekin: eta zu, zertaz mozo-rrotuko zara?

ESKER ONA

Ramona Unzueta Aranzabal

Felix Elexpuren alarguna

Aramaion hil zen 2008ko urtarrilaren 24an, 98 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen
eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.*

Aramaion, 2008ko urtarrilaren 28an.

zorion agurrak



**ARRASATE
Irati Larrinaga**
Urtarrilaren 18an, 5
urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
txikiko lagunen
partetik.



**BERGARA
Nagore Iñurrategi**
Urtarrilaren 21ean
urtebetetzea.
Zorionak bi aldiz.
Aquagymeko lagu-nen partetik.



**OÑATI
Gloria Tejada**
Urtarrilaren 23an.
Zorionak eta urteko
askotaroko!! Ondo
pasau zeure eguna-n
ta laztan haundi
bat kuadrillakuen
partetik.



**OÑATI
Alaitz Urrutia**
Urtarrilaren 24an.
Zorionak Alatz!
Bikain pasau zure
17. urtebetze eguna-n,
ta este bukae-ran
juerga o batekin
borobilddu!
Kuadrillakuen
partetik!




**DEBAGOIENA
Jokin Dorado
Herrera**
Urtarrilaren 25ean,
3 urte. Zorionak
eta patxo haundi
bat Anerren,
Nagoreren eta
Oierren partetik.
Zorionak bitxito!



**ARRASATE
Gaizka Vitoria**
Urtarrilaren 26an
urtebetetzea.
Zorionak eta besa-kada handi bat!
Senarraren, seme-alaben eta familia
guztiaren partetik.



**ARRASATE
Jone Arizabaleta**
Urtarrilaren 26an,
urtebetetzea.
Zorionak eta besa-kada handi bat!
Senarraren, seme-alaben eta familia
guztiaren partetik.



**OÑATI
Izar Bikuña Malbadi**
Zorionak printsesa!
Ondo pasau zure 4.
urtebetetza. Muxu
haundi bat danon
partez! Ah, tartia
jatea fango gara!



**ARRASATE
Danel Ruiz**
Urtarrilaren 27an,
2 urte. Zorionak
potxolo! Muxu
haundi bat aitatzoren
partetik!



**OÑATI
Amaia Perez
Zumalde**
Urtarrilaren 27an,
18 urte. Egun alaia
pasa deazazula. Urte
askotaroko juergis-ta!
Etxekoena eta
kuadrillako partetik.



**ANTZUOLA
Iratxe Aiastui**
Urtarrilaren 27an,
16 urte. Zorionak
bihotz bihotzez
familia-koen
partetik.



**BERGARA
Julian Aiastui**
Urtarrilaren 28an,
85 urte. Zorionak
bihotz bihotzez
familia-koen
partetik.



**ANTZUOLA
Idoia Larrea**
Urtarrilaren 29an.
Zorionak eta patxo
pillo bat itsasoaren
bestaldetik.



**BERGARA
Ibon Etxabarri**
Urtarrilaren 29an
10 urte, Zorionak
eta patxo haundi
bat etxekoena
partetik.



**ARRASATE
Rafael Soriano**
Urtarrilaren 29an,
56 urte. Zorionak
eta urte askotaroko.
Etxekoak.



**OÑATI
Begoña Idigoras
Errarte**
Urtarrilaren 29an.
Zorionak eta urte
askotaroko, ama!
Muxu haundi bat
etxeko danon
partetik.




**ARETXABAleta
Josu Aizpurua**
Urtarrilaren 30ean,
7 urte. Zorionak eta
ondo-ondo pasatu,
lagunen partetik.



**ARETXABAleta
Anton Altuna Jauregi**
Urtarrilaren 30ean.
Bihotz-bihotzez
zorionak aitita
Anton. Urko ta
Udane.



**OÑATI
Amaia Goitia**
Urtarrilaren 30ean.
Zorionak wapa! Oso
ondo pasau zure
urtebetetzenetan
kuadrillakuen partetik.




**BERGARA
Itsaso Goenaga**
Urtarrilaren 30ean
11 urte. Maddi eta
etxekoena partez,
zorionak!



**OÑATI
Miren Barrena**
Urtarrilaren 30ean.
Zorionak guapixima!
Muxu haundi bat
kuadrillakuen partetik!



**BERGARA
Jone Ibarra**
Urtarrilaren 30ean
7 urte. Zorionak
etxekoena partetik
bereziki Gorka.




**BERGARA
Itziar Mujika Lopez**
Urtarrilaren 31n 6
urte. Zorionak eta
patxo handi bat
etxekoena partetik.



**OÑATI
Jon Cotillas**
Urtarrilaren 31n.
Zorionak eta laztan
handi bat etxekoena
partez, Unairen eta
Ainhoaren partetik.



**BERGARA
Nikole Gonzalez
Altuna**
Urtarrilaren 31n.
Zorionak eta patxo
handi bat, etxekoena
partetik.



**BERGARA
Malen Garitano**
Otsailaren 2an 3
urte. Zorionak eta
patxo bat familia
guztiaren partetik,
bereziki Unax.

hildakoak

• **Sor Antonina Pomares Etxegarai**

Eskoriatzan, urtarrilaren 23an. 90 urte.

• **Patxi Garitano Alberdi**

Antzuolan, urtarrilaren 24an. 72 urte.

• **Jesus Elkoro Idigoras**

Arrasaten, urtarrilaren 24an. 95 urte.

• **Ramona Unzueta Arantzial**

Aramaion, urtarrilaren 24an. 98 urte.

• **Eduardo Roitegi Ayala**

Eskoriatzan, urtarrilaren 24an. 76 urte.

• **Antonio Lizarzabala Zabala**

Bergaran, urtarrilaren 25ean. 86 urte.

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

ASTELEHENeko GOIENKARIaren bidez!

Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

asteburuko albuma



1956an jaiotakoen afaria. Ederto pasa zuten zapatu gaua 1956 urtean jaiotako bergararek, kintada izan zuten-eta. Zabala jatetxeen elkartu ziren 21:30ak inguruan. Guztira, 37 lagun izan ziren afari horretan. Oso ondo pasa zutela jakinaz digute; hitz egin ere nahi-kotxo egin zutela esan digute. Irudi bat bidali dute. Ardoa eta cava oso gozoa zegoela ematen du. Hurrengo urterako hitzorduan pentsatzen egongo da dagoeneko kinta horretako bat baino gehiago.



Pirritx eta Porrotx. Pirritx eta Porrotx pailazoak gustura daude gurean. Zapatuan Aretxabaletako kirol etxeen izan ziren, bere azken ikuskizuna aurkezten. *Eskerrik asko!* du horrek izena eta minbizien gaia gerturatzet die umeei. Etxeko txikienak ederto pasa zuten ordu eta erdi inguru iraun zuen ekitaldian. Bada, baten gehiagoko begietan malkotxoak ere agertu ziren. Datorren zapatuan Bergaran izango dira Pirritx eta Porrotx. Antzezlana ikusteko sarrerak agortu dira dagoeneko.



Al Aldalusen urteak. Urteak bete ditu aste bukaieran Arrasateko Al Andalus elkartek. Egin berri dituen 18 urteak ospatzeko hainbat ekimen izan ziren zapatuan. Aurten Durangoko gune andaluziarra omendu gura izan dute eta goizean, elkarre horretako kideak hartu zituzten. Herri bazkariaren ondotik, hiru saio izan ziren. Gauean ere musika izan zen nagusi.



Txapel Txin eguna. Aretxabaletan ongi etorria egin diente dagoeneko aurten Aratusteet. Motoreak berotzen hasi ziren zapatuan, Txapel Txin egunarekin. Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna amaitzean, kirol etxetik kalejiran abiatu ziren adin guztietako aretxabalearrak, haurrak zein helduak. Txapela buruan eroan zuten askok, hotzari aurre egiteko, agian. Txistulariak kaleak girozeaz arduratu ziren.



jaiotakoak



Ibai Apraiz Garcia Eskoriatza > 3.310 kilo. Urtarrilaren 22an. Gurasoak: Jon (Eskoriatza) eta Angela (Eskoriatza). Argazkian, amarekin.



Luz Mila Blanco Delgado Arrasate > 3.200 kilo. Urtarrilaren 22an. Gurasoak: Carolina (Arrasate) eta Ramiro (Arrasate). Argazkian, umea lo.



Aimar Ortiz Esnaola Eskoriatza > 3.360 kilo. Urtarrilaren 21ean. Gurasoak: Idoia (Beasain) eta Nikolas (Eskoriatza). Argazkian, amarekin.



Haizea Azurmendi Olalde Oñati > 3.020 kilo. Urtarrilaren 21ean. Gurasoak: Arantzazu (Oñati) eta Karlos (Oñati). Argazkian, umea kuman.



Iñaki Aldabe Tena Arrasate > 3.260 kilo. Urtarrilaren 22an. Gurasoak: Rosi (Arrasate) eta Peio (Arrasate). Argazkian umea kuman lo.



Julen Ugartetxe Garcia Arrasate > 3.190 kilo. Urtarrilaren 22an. Gurasoak: Silvia (Arrasate) eta Josu (Arrasate). Argazkian umea kuman lo.



Txaber Urgoiti Aguirre Arrasate > 3.230 kilo. Urtarrilaren 24an. Gurasoak: Arrate (Arrasate) eta Asier (Gernika). Argazkian arreba Itxasorekin.



Asier Nogueiras Guzman Oñati > 3.270 kilo. Urtarrilaren 23an. Gurasoak: Mª Elena (Oñati) eta Arturo (Oñati). Argazkian umea gurasoekin.



Jokin Sanz Carmona Arrasate > 4.020 kilo. Urtarrilaren 23an. Gurasoak: Konxi (Arrasate) eta Juanjo (Arrasate). Argazkian Vicenta amonarekin.

BABESLEA

**IKUSI
MAKUSI**

Umeen
paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Antton Olariaga > Marrazkilaria

"Asko negoziatu beharra daukat 'Zakilixut'-ekin"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Antton Olariaga da **Zakilixut** komikiaren aita eta Arrasateko Santamasetako horma-irudiaren urteko egilea, besteak beste. Hain zuzen ere, Euskal Herriko marrazkigintza, komikigintza eta ilustrazio modernoaren aitzindaria da.

Zelatan hasi zinen fisika ikasten?

Betidanik zientziak oso gustuko izan ditut. Zalantzan egon nintzen matematika edo fisika ikasi, eta azkenean hori aukeratu nuen. Baino, lehenengo urtea egin eta gero Arte Ederretara aldatu nintzen. Marraztea eta komikigintza betidanik asko gustatu zaizkit, eta erronka jarri nire buruari: "Hau eginez, biziiza aurrera aterta ahal izango dut?" Eta gaur arte!

Euskal Herriko marrazkigintza eta ilustrazioaren aitzindaria zara...

Beno, gerra aurretik ere egon da tradizio grafikoa Euskal Herrian, eta nik beti aipatzent Jon Zabaleta izan dela gerra osteko marrazkilari eta komiki-

lari onena. Jon Zabaleta beti izan da niretzat erreferente garrantzitsua.

Goseric pasa duzu?

Gose mota asko daude, baina aldamean asetzeko zerbaits bidaukazu horrekin moldatzera. Garai baten lan baldintzak oso gogorrak ziren: ez genuen kontraturik, marrazkien eskubideak argitaletxeenak ziren... eta borondatzeko lan asko egin behar izaten genuen. Askotan doan lan egiteko eskatzen ziguten, eta behin eta berriro aldarrikatu

TEST-A

Herria: Astigarraga. **Adina:** 61 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak. **Zaletasunak:** Txirrindularitza, musika eta liburuak, hirurak ikaragariak dira. **Musika talde bat?** The Shadows. **Bidaiarik?** Behar baino bidaia gutxiago egin ditut. **Bete duzun amets bat?** *Il Palio* zaldi proba ikaragarria ikusi nuen Italian, Arrasateko Santamas Komisiñotik deitu zintuzten...

Bigarren urtean harritu ninduen berriro deitzeak, eta hala jarraitzen dut. Dibertsio oso handia da txerria protagonista bihurtu eta Santamasetako horma-irudiak egitea, filmak, urteko gertakariak eta bestelakoak gaitzat hartuta. Gozamena da egitea.

behar genuen gure ogibidea hau dela, marraztea. Baino garaiak ere halakoak ziren.

Ilustrazio asko egiten dituzu?

Gozamen bat da liburuak ilustratzea, eta egileekin lanaren gainean berba egitea. Gainera, izugarrizko gozamena da liburuak inork baino lehen irakurtzea. Erronka erakargarria da eta erantzunkizun profesionala. Asko betetzen nau.

Zer dauka zurea Zakilixut-ek?

30 urtetik gorako harremana daukagu. Dagoeneko bizirik dago. Lehen nik menderatzentz nuen, baina gaur egun erdizka gabiltza, asko negoziatu behar izaten dugu.

1978an Arrasateko Santamas Komisiñotik deitu zintuzten...

Bigarren urtean harritu ninduen berriro deitzeak, eta hala jarraitzen dut. Dibertsio oso handia da txerria protagonista bihurtu eta Santamasetako horma-irudiak egitea, filmak, urteko gertakariak eta bestelakoak gaitzat hartuta. Gozamena da egitea.



UMOREA Umore oso berezia dauka Antton Olariagak.

IKER BARANDIARAN

ai, ene!



Dutxako hodia gortina esekitzeko egokia da

Komunean toki gutxi baldin baduzu, ez zaitez arduratu. Pluvia izeneko dutxa asmatu dute. Ur-hodiak gortina zintzilikatzeko balio du.

<http://www.matteothun.com>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Zatoz eta ikasi, Benedikto!

Benedikto XVI.ak herriari bizkar emanez ospatu zuen hamahiru haurren bataio ospakizuna eta meza. Aita Santuak bere kabuz hartutako erabakia da herriari bizkar emanez meza ematea Sixtina Kaperan. Kontua ez da niretzat estetika edota aldarea non dagoen. Kontua ez da meza bizkar emanez ematea, herriari bizkar emanez bizitza baizik. Hauxe da arriskua! Galdetzen diot Errromako Elizari, nirea ere den Eliza honi eta betidanik gure onerako, baina beti gurekin kontatu gabe erabakiak hartzen duen Eliza *santu* honi: Non da teologiak behin eta berriz aldarrikatu duen herriaren sentipen eta nahiekin bat egin behar duen Eliza?



Non eta zertan zabiltza? Noren mesedetara ari zara bizkar emanez herriari? Bergarako ermitatan ari gara santuak ospatzen San Antonen, Uberan eta igandean, berriz, San Blasen. Nola eman bizkarra herritar eta fededunei neure *kyrie eleisonak* neuk bakarrik entzuteko ahoapean? Meza eta festak aukera paregabea izaten dira Elizak behar duen txinparta eta malgutsuna adierazteko, aldarrakatzeko eta hortik ikasteko. Nola galdu bertakoeng begirada eta bihotzetako distira hori? Guk zer ikasia izango dugu, baina zer erakutsia ere dugulakoan gonbidapena egingo diot neure anai zaharra den Benediktori. Zatoz eta ikusi, zatoz eta ikasi!

eguraldia



MAXIMOA

+13

MINIMOA

+04

Zerua hodei gutxirekin egongo da. Goizean norabide aldakorako haize ahula ibiliko da eta arratsaldean ekialdeko izango da.

www.euskalment.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiarren izena (Abestiarria) | **KODEA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

Trinketa
Bexamela ta pastela (Maixa txik) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nirk jai (Tapi) | **IHK**
Itzalas onti batzen (Kaxiano) | **ITSAK**
Kupela (Epeko eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galera (Maitz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon batzen truke (Alatz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Realia | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrrikoak
Bagaret | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ERREALAK (2 SMS)
KODEA

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

Iku Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN JAH**
Jaietakoak
Artillerio dale fuego | **ARTILLERO**
Marijaja (Kepa Junkera) | **JAJA**
San Fermin | **FERMIN**
San Martzaletako alardea | **SAN MARTZIAL**
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bal euskaran (Pantxoa) | **BAL**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maita (Benito Lertxundi) | **BIZKIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herriak Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**
EZ da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**

1,2,3,4... Real!! | **REAL**
Alboko | **ALEKO**
Athletic Irupe!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Alaren ta semea.. | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miamioll | **MIAMOL**
Independientz | **INDEPEND**
Irrintza | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazul (pilota) | **MILAZU**
Suprinu | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta TXALA
Ixootx | **IXUTX**

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarri den eskaientz ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari. Bertan jasoko duzun beharko duden informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukatu eskratzeko, beherezko da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatzeko, jarraitze zure homenzalearekin harremantzen. Alta ematea doan da eta Ko jasiera bakanik ordaintzen beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
* Euskalnet deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-/* Movistar deitu 699-
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantzak duzula, jari gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZazioak:** Zure neurira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezakete nahi baduz, jari gurekin harremantzen eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

SMSSOINU
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak